


-HISTORIAURREA 21-

GIPUZKOAKO IPAR-EKIALDEKO EHORZKETA-EGITURAK NEOLITO ETA METAL-AROETAN



KOKAPEN ESPAZIALA ETA LURRALDEAREKIKO HARREMANA

IZASKUN EGUILEGOR URANGA
HISTORIAKO GRADUA
ZUZENDARIA: JOSE ANTONIO MUJIKA ALUSTIZA

Laburpena:

Paleolitotik Neolitorako trantsizioan, ezaugarri ekonomiko zein sozialen aldatzeak garai berri baten ezartzea ekarriko du. Eraldaketa horien garabidean megalitismoaren fenomenoak izango dugu. Neolito Burdin Aroa arte garapen bat nabari da hilobi arkitekturak, hots, taldeko lurperatzeetatik (trikuharriak), hilobiratze indibidualak izango zirenak agertu arte (zistak eta harrespilak). Ondorengo lanean Gipuzkoako IEko fenomeno megalitikoaren modelizazioa eta banaketa espaziala gauzatu da. Banaketa geografiko eta espazial hori gauzatzeko informazio geografikoa lantzen duen sistema bat erabili dugu zeinaren bitartez Eredu Digital bat osatu dugu. Lortutako datuekin, hots, monumentu kopurua, banaketa, megalitotegi ezberdinak, hilobiratzeen arteko elkar eragina, megalitoak eta inguruarekiko harremana uztartuz (puntu altuak, bailara, ur iturriak...), ondorio ezberdinak atera dira. Lehenik, megalitoak taldeka kokatzen dira edota mendizerren gandorrari jarraituz. Bigarrenik, hilobiak beste erabilera bat izan dute historian zehar, mugari gisa erabiliak izan dira. Eta azkenik, ezin izan dugu zehazki, lurralde antolaketa zehatz baterako kokapena dutenik baieztatu nahiz eta zantzuak egon badauden horretarako.

Hitz gakoak: Megalitotegia. Hilobi arkitektura (trikuharri, zista, harrespilak). Brontze Aroa, Burdin Aroa. Kokapen espaziala. Lurraldearen ustiakuntza. Mugari.

Abstract:

The transition of the Paleolithic to the Neolithic and the socioeconomical changes, supposed the implantation of a new period. Against these changes simultaneously, we would have the megalithic phenomenon which will establish a new form of life. A transition is evident in the architecture from times of the Neolithic up to the Iron Age, from collective burials (dolmens), up to supposed individual burials (cists and cromlechs). In this research work, the modeling and spatial distribution of the Megalithic phenomenon of IE in Gipuzkoa has been carried out. We have used a geographic information system for geographic and spatial distribution, through which we have completed a Digital Model. With regard to the data obtained, that is, the number of monuments, distribution, megalithic structures, interaction between burials, megaliths and the relationship with the environment (high points, valleys, water sources...) several conclusions have been drawn. First, the megaliths are located in groups or following the mountain range. Secondly, the tombs have had another use, they had been used as landmarks. And finally, we couldn't say exactly if they had an specific location, nevertheless they had some clues for these conclusions.

Key words: Megalithic Station. Funeral architecture (dolmen, cista and cromlech). Bronze Age. Iron Age. Spatial location. Territorial exploitation. Landmark.

AURKIBIDEA:

1. SARRERA	3
2. TESTUINGURUA.....	3
2.1. Testuinguru geografikoa.....	3
2.2. Gaiaren inguruko aurretiazko ikerketak.....	6
3. METODOLOGIA.....	7
4. ANALISIA.....	9
5. GARAPENA.....	12
5.1. Megalitotegien azterketa.....	12
1. ADARRA-OINDI-MANDOEGI.....	12
2. IGOIN-AKOLA-TXORITOKIETA.....	20
3. OIARTZUN.....	28
5.2. Sintesia eta diskusioa.....	34
6. ONDORIOAK.....	42
7. BIBLIOGRAFIA.....	44
8. ERANSKINAK.....	50

1. SARRERA

Giza taldeen kokapen geografikoa eta lurralde antolaketa zein ustiaketa aztertzeke, azken urteetan garatu diren disziplinek -SIG aplikazioa kasu-, indar handia lortu dute. Lerroarte hau historiaurrearekin uztartzen badugu, giza talde ezberdinen kokapenaren inguruko gora beherak aztertzeke aukera izan genezake. Hori gutxi balitz ordea, euren sinesmen eta kulturaren inguruko xehakapen bat egitea abiapuntu interesgarri bat izango litzateke hauen eguneroko bizitza, harreman sozial zein kulturalak aztertzeke bideratutako plangintza bat garatzeko. Norabide horri jarraiki, datozen lerroetan heriotza arkitekturaren inguruan azterketa bat garatzearekin batera, ondorio ezberdinak plazaratzen ahaleginduko gara. Paleolitotik Neolitorako trantsizioan, ezaugarri ekonomiko zein sozialen aldatzeak garai berri baten ezartzea ekarriko du. Eraldaketa horien garabidean megalitismoaren fenomenoak izango dugu, zeinak hilobiratze arkitekturaren eraldaketa baten presentzia ekarriko duen. Gipuzkoako IEko eremuan kulturaren bizimodu berriarekin batera, eta horren harira horrek bere gain dituen ezaugarriak.

Lan honek duen helbururik nagusia, megalitoen kokapen geografikoa aztertzea da, hauek erabiltzen zituzten baliabideen ustiaketa, testuinguruaren aprobetxamendua, inguruarekiko duten harremana eta kokapen espaziala zehazteke. Ondorengo lerroetan ikusteko aukera izango den moduan, lanak megalitotegi ezberdinen informazioa emateaz gainera, hauen kokapenaren inguruan atera daitezkeen ondorioak plazaratu eta horren zergatiak ulertzen saiatuko gara, Gipuzkoako IEko inguruan.

2. TESTUINGURUA


2. 1. Testuinguru geografikoa

Gipuzkoako lurraldearekiko lehen begirada batean, eremu nahiko gorabeheratsua dela aztertu daiteke. Alpetar orogenesiaren ondorioz duela 40 bat milioi urte sortu zen lurraldea, Iberiar eta Eurasiar plaka tektonikoen desplazamenduen eraginez. Bizkaiko golkoa, Euskal Mendiekin batera eta Pirinioak, Iberiar plaka eta Frantzia hegomendebaldearen arteko talkekin sortu ziren (Batzuen Artea, 1991).

Gutxi gorabehera 1980 km²-ko azalera du (Gipuzkoako Batzar Nagusia, 2012). Ingurune fisikoa aztertu aldera, hiru gune geologiko bereiz daitezke: Ipar-Ekialdea, material Paleozoikoak nagusi izanik (arbela, kuartzita eta granitoa); kostako zonaldea,

garai Tertziarioko materialekin (hareharria, kareharria, arbela eta buztina) eta lurraldearen gainerakoan nagusi diren gai Mesozoikoak, bereziki Kretazeoak, kareharri eta egiturak nagusituz (Batzuen Artea, 1991). Gaien trinkotasun ezberdinak eta higadura diferentzialak 500 m eta 1544 m bitarteko altuerak dituen erliebea gauzatu dute. Eremuan kate zein korridore ezberdinak osatu dira; itsasertzeko katea, itsasertz aurreko korridorea, beren artean paraleloak diren haranak eta zeharka egitura-lerrokadurak mozten dituztenak eta barneko katea orokorki osatuz (Meaza *et al.*, 1996).

Azaleraren hamarren batek soilik eskaintzen du %15tik beherako malda, hala ere, ez dira lur altuak. Lurraldearen %26a 200 m-tik behera kokatzen den bitartean, oso adierazgarria da %83a 600 m-tik behera egotea. Soilik %3 dago 1000 m-tik gora.



Aurrerago aztertuko dugun moduan, honek eragin zuzena izango du aztarnategien kokapena aztertze aldera (Gipuzkoako Batzar Nagusia, 2012).


Gipuzkoako ibaiek kostarekiko eta tolestura-ardatzekiko norabide perpendikularra hartzen dute eta horrekin batera, uren banalerroaren eta itsasoaren artean duen gertutasunak baldintzatzen dute. Ibaietako maldak handiak dira, goiko tartetan %25eko malda izan ditzakete, beraz, higadurak lan handia gauzatzen du (Meaza *et al.*, 1996).

Gipuzkoako lurrak aztertu ostean, IEko eskualdean zentratuko gara. Oriako ibaiaren ardatza mugarri gisa hartu eta IE norabidea hartuz, itsasora iritsi arte. Hauen

inguruan, hegoalderantz eginez, margak eta kareharriak nahasten dira eta iparralderantz berriz, margak eta zohikatz harri biguinak (Meaza *et al.*, 1996) (1. irudia).

Gipuzkoako Ipar-Ekialdeko klima orokorrean berezia dela esan daiteke. Urte osoan zehar temperatura nahiko orekatuak dira, zeinak epelak izaten diren 14,3°C eta 12,7°C -tan mantenduz (Uriarte, 1987). Itsasoarekiko gertutasunak eta Kantauriar itsasoaren masak temperaturak orekatu egiten ditu, horregatik hegoalderantz egiten duen heinean temperaturen aldaketa zantzuak igartzen dira, Goizuetan adibidez. Gainera honen orografiak eta mendien garaiera ertainak hesi bioklimatiko gisa jokatzen dute (Ruiz *et al.*, 1987). Horrela, Gipuzkoako lurretan bertan prezipitazioen aldeak nabari dira; 1500-1700 mm/m² Donostia inguruan neurtzen diren bitartean, 1800 mm/m² dira Irun-Hondarribia aldean eta

Oiartzun-
Artikutza
inguruan 2400
mm/m²ko
neurriak hartzen
dira
(Merino, 1990)
(2. Irudia).



2. irudia: Gipuzkoako mapa klimatikoa (Gipuzkoako Batzar Nagusiak, 2012).

2. 2. Gaiaren inguruko aurretiazko ikerketak

Historian zehar eta batez ere lehen trikuharriak aurkitu zirenetik, eraikuntza bitxi hauekiko interes handia piztu izan da gure inguruan, *James Fergusonek* eraikuntza guzti hauek bateratzen zituen kontzeptua fenomeno gisara identifikatu zuenetik (Thomas, 2012). Taldekako zein bakarkako hilobiratzeak diren heinean, erakusten duten monumentaltasuna eta hauen barnean aurkitu diren hatuak kontuan hartuta, fenomeno honen inguruko lanak garatuak izatea ahalbidetu du. Gure lurraldean are gehiago, fenomeno honen ebidentziak anitzak baitira eta Euskal Herriko zein Piriniotako megalitismoaren ikerkuntza landu bat eraman da aurrera. Gipuzkoan aurkitu zen lehen trikuharria Jentillarrikoa izan zen (Aralar) 1879. urtean (Altuna *et al.*, 1982).

Pasatako mendearen hasieran monumentu handien erantzun izan ziren aurkikuntzak gauzatu ziren. Hauen arkitektura eta disposizioak, Frantzia edota Ingalaterran aurkitzen ziren megalitoen antzeko eskema jarraitzen zuten (Armendariz, 1987). Gipuzkoan batez ere T. Aranzadi, J. M. Barandiaran eta E. Eguren izango dira megalitismoaren gaineko azterketa *zientifiko eta sistematikoari* hasiera emango diotenak, baina Gerra Zibilak eten egingo du lan hau (Andrés, 1990). Gaur egungo megalitoen ikerketen protagonista ezberdinen eskutik abiatzen dira. J. M. Apellániz, (1973, 1975 zeramika zuten kulturak) J. Altuna (1972 aztarnategietako fauna), J. Fariña, A. Llanos, P. Rodríguez de Ondarraren, L. del Barrio, A. Armendariz, J. A. Mujika eta J. Peñalver-ren eskutik, Euskadiko megalitoen ikerkuntzak aurrera eraman ziren (Edeso *et al.*, 2012).

Gipuzkoako Ipar Ekialdean, 1909 urte aldera Oiartzungo inguruan lehen aurkikuntzak egingo ditu P. Soraluek Oianlekuko harrespilak eta inguruko beste hainbat hilobi aurkituz (Landarbaso eta Aitzbitarteko haitzuloak -Errenteria-). Igoien Akola eta Adarra-Oindi-Mandoegiko lehen berriak 1920ko hamarkadan datozkigu J. M. Barandiaranen eskutik. J. Altunak eta J. Apellanizek landako esku-hartze arkeologiko batzuk induskatzea zuten xede, hauen helburua megalito gehiago induskatzea izan zen, horien artean Pozontarriko Lepoa. Horrek ahalbidetu zuen Apellanizek bere tesia ateratzea hiru liburuetan: “Corpus de las culturas prehistóricas con cerámicas de la población de cavernas del País Vasco” (1973), “El grupo de los Husos durante la Prehistoria con cerámica (1974), “ El grupo de Santimamiñe durante la prehistoria con cerámica (1975).

1923 inguruan Landarbaso I aurkitu zuen Barandiaranek baino, 1950ra arte ez da industuko. 50-80. hamarkada artean, Landarbaso I-IV aurkituko dira, L. del Barrio; T.

Ortegak.; F. Zumalabel. L. Millan.; Tx. Ugaldereen eskutik. J.Elosegi.; M. Laborde;T. Atauri; X. Peñalver; eskutik 50. hamarkadan aurkitu ziren hare megalito gehiago. Adarra-Oindi-Mandoegi megalitotegiko lehen aurkikuntzak 1923an egin zituen J.M. Barandiaranek. 50-90 urte bitartean berriz, I. Gaztelu, L. Millan, J.J. Otxoak, Tx. Ugalde, hau da, Hilharriak taldearen eskutik habiatu ziren, egun labean jarraitzen dutenak (Altuna *et al.*, 2002; Mujika *et al.*, 2012).

Igoin Akola eta Txoritokietako ingurua oso eremu heterogeneoa dela esan dezakegu bai hilobien tipologia eta kronologiari dagokionez, horrek eta Txoritokieta inguruan aurkitutako aztarnak kontuan hartuta 2010 urte inguruan hasi ziren indusketa lanak. 90. hamarkadan F. Zumalbek hasi zituen bere indusketak eta ondoren Berrozpin inguruan J. Tapia eta M. Ceberioaren eskutik joan ziren, zeinak egun ere lanean jarraitzen duten (Tapia *et al.*, 2010).

3. METODOLOGIA

Lan honetan Neolitik Burdin Arora arteko hilobiratzeek duten lurraldearen kokapen geografikoa lantzen den heinean, Gipuzkoako IEko megalitismoaren inguruko kokapena zehaztea eta horren azterketan sakontzea izango da helburu nagusia. Horrek metodologia konkretu bati lotuta egotea eta era berean, aplikazio zehatzak maneiatzea dakar. Informazio hori lantzeko, hots, datu espazialaren sorkuntza eta erabilerarako, komenigarria den tresna batez baliatzea egokiena izango litzateke, SIG kasu.

Honetan erabilitako metodologia hilobiratzeen bilaketa bibliografikoa erabiltzeaz gainera, zeinak izaera etnografiko zein historiko izan duen, lurraren modelizaziorako erramintak erabili dira aurretiaz aipatu bezala. Erabilitako garrantzitsuena informazio geografikoko analisisa egiteko izan da. Honen bitartez mapen bidez bisualizazioa erraztuz geografia eta arkeologiaren arteko erlazioa bilatzea izan da helburua.

Lehenik eta behin, megalitotegi bakoitzaren zein monumentu megalitiko zehatzen datu bilketa bat gauzatu da. Horretarako 1990/2002ko Gipuzkoako Karta Arkeologikoaren bitartez datuak lortu (Altuna *et al.*, 1990; 2002) eta erlazionatzea izan zen lehen pausua, baita aurkikuntza berriak ere, plazaratutako artikuluetatik (Del Barrio, 2011, 2014, 2016; Ceberio, 2016, Alberdi *et al.*, 2014; Tapia *et al.*, 2010, 2015). Haatik informazio zehatz zenbaitetik beste zenbait argibide ere lortu dira euren arteko erlazioa kontuan izanik. Datu base bat sortu ondoren, zeina tauletan antolatua izan den, estazio megalitiko bakoitzaren azterketa osatzea izan da hurrengo urratsetariko bat.

Datu espazialen sorkuntzarako tresna bat erabiliz eta informazioa uztartuz, ideiak zein ondorioak atera ditugu. Hori aurrera eramateko erabilitako tresna SIG da, horrela definitu izan dena: “*sistema informático que sirve para la recogida, tratamiento, almacenamiento, análisis, presentación y distribución de un gran volumen de datos espaciales*” (Blostad, 2002: 237). Análisi mikro zein makro espazialen azterketa garatzeko, paleo-paisaien berreraiketa, zein lurraldearen antolaketarako erabiltzen den erraminta dugu SIG. Aukera anitz eskaintzen dituen tresna da, aztarnategien antolakuntza ikusteko mapak, datu topografikoak erabiliz, elkar eragin handiago bat sor ditzaketen mapak eratuz eta datu hauetaz baliatuz gero, arkeologiaren ikerketan geroz eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari den erraminta baten aurrean egongo ginateke (Baena *et al.*, 1997). Nahiz eta, lantzen ari garen azken xedea kontuan hartu gabe, SIG eta arkeologiaren arteko harremana nahitaez konplexua da bi elementuen izaerarekin (Parceo-Oubiña *et al.*, 2007).

Datuok eta mapak interpretatzeko orduan errazagoa suertatzen da tokian tokiko ñabardurak aztertu eta bertaratzea. Horretarako, mendikate nabarmenetan ere “landalana” egin eta egun geratzen diren aztarnak aztertu ditugu.

Baina horretaz gain, marko teoriko baten inguruan ere murgildu gara. Lortutako emaitzak testuinguru zehatz baten barnean kokatzen diren heinean, hori ezagutzeko beharrezkoa den informazioarekin ere aritu gara. Horretarako bibliografia ezberdinaz baliatuz, hauek aztertu eta Historian ulertzeko aukera izanik, testuinguru hori ere landu da. Marko teoriko horretaz gainera, gure helburua betetzeko egin diren ikerketa eta plazaratutako hipotesi ezberdinak ere aztertuak izan dira. Ideia horiek, lortutako datu baseekin alderatuz gero, ondorio ezberdinetara iritsi gara, zeinak bibliografia eta datu propioekin osatu diren, hala nola, adibide ezberdinak erabiliz. Interpretazio hau argiago ulertzeko, osatutako grafiko zein mapak erabili ditugu, informazioaren plazaratzea errazagoa izateko.

Orokorrean, lan bibliografiko bat baino, ikerketa lan bat ikusteko aukera izango dugu. Datu bibliografiko zenbait erabiltzea beharrezkoa den heinean, horien inguruko zertzeladak bai aipatzen dira lanean, baina lanaren muina datuetatik ateratako informazioaren interpretazioa da.

Euren arteko erlazioa eta bakoitzaren deskribapen bisual bat osatzeko asmotan. Eraikuntzen azterketa deskriptiboa osatzerako orduan konparaketa bati heldu diogu,

horrela grafikoak eta taulak osatuz, lana ulergarriagoa izateko helburuarekin. Datuok ondoren sintesi eta eztabaida bati lotuta daude, ingurune geografiko zein orografikoari lotutako datuak bateratu eta emaitzak lortze aldera.

4. ANALISIA

Mendebaldeko Historiaurreko hileta munduaren inguruko informazioa ateratzea zaila bada ere, gizakiaren errituak zein sinesmenak ulertzeko aukera ezin hobe suertatzen da. Horretaz gain egunerokotasunaren froga izango ziren hauek, rol ekonomiko zein sozialak ezagutzeko aukera itzela eskaintzen dute. Arazoak ere anitzak dira hauen kontserbazioaz aritzen bagara, hala nola, giza taldeen mugikortasuna, aire zabaleko aztarnak mantentzeko arazoak, praktika eta hileta prozesuen inguruko datu objektiboen falta, beste hainbaten artean iraupena mugatzen dute. Nola ez, informazioak historiaurrean zehar ere garaian garaiko ezberdintasunekin bat egiten du (*1. eranskina*). Europan ezagutzen diren hilerriak handiak dira; Hoëdic eta Téviec, (Frantzia), muge (Portugal), Vedbaek (Danimarka) eta Skateholm (Suedia); eta baita Valentziako El Collado aztarnategia kasu (Mujika *et al.*, 2012) (*2. eranskina*).

Antzinako Neolitoko aztarnategien falta dela eta, ondorioak ateratzeko Europa mendebaldeko datuak aztertzerako jo behar dugu, zeinetan dinamika kulturalak antzekoak izango ziren. 6500 BP inguruan hobietan eta tumulu azpietan egindako lurperatzeen aztarnak ditugu, zenbait inguruetan, Fleurysur Orne (Frantzia) adibidez. Garai honetako adibide bat Euskal Herrian, *Los Cascajos* (Los Arcos, Nafarroa) aztarnategia izango litzateke, zeinak nekazal ekonomian oinarritzen ziren. Bertan 30 bat ehorzketa aurkitu ziren, batzuk bikoitzak zirenak. Erdi-Azken Neolitoan berriz (5300 BP) hileta munduaren aniztasun bat igartzen da, monumentu megalitikoek eraikitzea hasten da, gainera, hilobi haitzuloetako ehorzketak ugartzen joango dira, aurrerago ikusiko dugun modura (Sesma *et al.*, 2001). Kontuan hartuta Holozenora sartzean haitzuloak babes gune izatetik alde batera uzten dituztela gehienetan, edota hauen erabilera gutxitzen doan heinean, hemendik aurrera, horiek erabiliko dira lurperaketa gisa, Los Husos (Laguardia, Araba), Peña Larga (Kripan, Araba) edota Marizulo (Urnieta, Gipuzkoa) kasu (Edeso *et al.*, 2012). Neolitoko aldi aurreratuetara salto egin behar dugu ordea horrelako hilobiratzeak Gipuzkoan aurkitzeko, zehazki 3335 ± 65 BP (*Marizulo*) urtera arte (Cava, 1990).

5000 eta 3000 BP urte inguruan Kalkolito eta Brontze Aroan zehar ehorte prozesu ezberdinen aurrean topatuko gara. Horien adibide dira ehorzketa-haitzuloak eta monumentu megalitikoak (trikuharriak, *zistak* edo harkutxak eta 3000 BPtik aurrera harrespilak), zeinak estuki lotuta egongo dira abeltzaintza eta transhumantzian ibiltzen ziren giza taldeekin (Mujika *et al.*, 2012).

Hilobi haitzuloak kare haitz zonetan garatutako prozesu naturalek eratu dituzten barrunbeak dira, haitzaren disoluzioaren eraginez sortuak higadura kimikoko prozesuek osatuak. Beste batzuetan hareharri geruzen babesean zeinetan jalkin bereziak, hala nola ura bera, muskuiluak eta bestelako sedimentuak posible egiten dute hezurren kontserbazioa, horrela, sortzen diren txokoak baliatzen dituzte ehorzketarako tokitzat. Horren adibide dugu J3 harpea, inguruan aurkitzen den jatorrizko material hareatsua urarekin nahastean desagertzen da. Hala ere, nahiz eta kaltzio karbonatoz eratutako arrastoak mantentzen diren bitartean makrofauna, mesofauna, mikrofauna eta giza aztarnak nahiko kaltetuak aurkitzen dira. Giza hezurren kontserbazioa muskuiluek duten karbonatoari zor zaio, zeinak hezurren babeserako hesi gisa jokatuak duten (Iriarte-Chiapuso *et al.*, 2005) (*3. eranskina*). Hildakoak barrunbeetan ehorztekoko praktikaren sustraiak Paleolitoan kokatzen dira, baina gizakiak historia guztian zehar jarraituko du erabiltzen; batzuetan etxebizitza gisa eta beste momentu batzuetan hilobi moduan (Mujika *et al.*, 2012). Kobak edo haitzuloak lurperatze leku bezala erabiltzearen praktika garai zein leku askotara zabaltzen da (Armendariz, 1990).

Gipuzkoako lurraldean aurkitutako ehorzketa berezietako bat data kalibratuetan 6200 eta 6100 urte artean kokatzen da, hots, Neolito aurreratuan datatuta dagoena. Urnietako *Marizulo* dugu, ehorzketa harri txiki batzuek inguratua zegoela aurkitu zen, zeinak *zista* antzeko bat gogoratzen duen. Ikergai dugun eskualdean, kareharriaren hedakuntza mugatua izanik soilik *Marizulo* dugu Neolitoko gizabanako baten hilobiratzea eta Brontze Aroko hilobi kolektibo bezala eta Aitzbitarte II hezur zatiren bat (Armendariz *et al.*, 1983). Gizabanako gazte baten hezurak agertu ziren, arkume bat eta txakur bat zituela lagun, eta agian sastakai bat ere, zeinak eskaintza moduan ezarriak izan zirela interpretatu da (Mujika, 2017). Beste aztarnategi batzuekin alderatuz gero, horrelako ekintzak garai hauetan aurrerago baino ugariagoak izango dira, hots, txakurra ostilamendu gisara eskaintzeak San Juan Ante Porta Latinam-eko (Guardia) edota Los Cascajoseko (Los Arcos) hilobiratzetan aurkituko da (Vegas, 2007; Sesma *et al.*, 2001).

Beste ehorzketa erritual bat paraleloki hedatuko dena monumentu megalitikoetako izango da. Gaur egun, Euskal Herrian ezagutzen dugun trikuharri kopurua milatik gorakoa da; horietako ehun eta berrogeita hamar Gipuzkoan. Hauen banaketa nahiko homogenea dela ondoriozta daiteke, nahiz eta zenbait lurraldetan kontzentrazioak (Aralar, Aizkorri, etab.) dauden, eta beste batzuetan berriz hutsuneak, adibidez Debarreneneko karaitzetan, Tolosa-Mutiku Antiklinorioan hilobi-haitzuloak ditugulako, eta beste arrazoi zehazgaitz batzuegatik Oiartzun inguruan ez dira nagusitzen (Edeso *et al.*, 2012).

Trikuharri soilak Euskal Herrian aurkitzen den motarik ohikoena da zalantza gabe, ehorzketa kolektiboaren hileta errituekin lotzen dira, hots denbora tarte luze batean pilatutako gorpuei dagokie. Lehenak Erdi Azken Neolitokoak dira, hots, 5300-5000 BP ingurukoak data absolutuetan, zeina Kalkolito garaian zehar ere jarraituko duten eraikitzen. Gutxi gora behera hauen altxatzeari 4500 BP urte inguruan utzi zuten, nahiz eta egon badauden ondorengoko datetan, batez ere aurrerago ezagutuko diren hilobi arkitekturekin alderatuz gero (*zista* edo tumulu harrespilak) antzekotasunak nabariak baitira (Pozontarri). Esan beharra dago, tumulu eta harrespil batzuk errauste ekintzekin daudela lotuak eta kronologian zehazten badugu, Erdi- Azken Brontze Aroari eta Burdin Aroari uztartzen zaizkio. Eboluzio bati atxikitzen zaio egituren garapen hau, horrela trikuharrietatik harrespiletara iritsiz, zistetatik pasaz (Edeso, 2012).


Nahiz eta Trikuharri soilak eta zisten arteko berdintasunak nabarmenak izan, testuinguru sozioekonomiko eta kultura batean egokituta, euren arteko ezberdintasunak ere egon badaude (Mujika *et al.*, 2017). Zistako ganberaren eta tumuluaren eraikuntza arduratsuagoa da, Oindi edota Mulisko Gaina ikusten dugun bezala. Ostilamenduei dagokienez, eremu aipagarri samar batean induskatutako trikuharrien kasuan zaila da tipologia eta kronologia desberdineko aztarnarik ez berreskuratzea; zisten kasuan, berriz, baliteke ikuspegi krono-kulturaletik aztarna adierazgarriak ez gordetzea (Oindi, Mulisko Gaina, Atxurbi), beste batzuetan, aztarnak deigarriak edo ohikoak ez direla (urrezko bi kiribil, Langagorri -Oiartzun-) (Mujika *et al.*, 2012). Dituzten neurri txikiak kontuan hartuta, beraz, hilobiratze indibidualetarako eginak daudela ondorioztatu da. Trikuharri eta zisten arteko ezberdintasuna izaera desberdineko aldaketak islatzen baitituzte, hots, sozioekonomikoak, kultur eta erlijio mailakoak. Modu berean harrespilekin; garapen baten erantzule diren heinean, taldekako hilobiratzeak alde batera utzi eta garai berriagoetan, lurperaketa indibidualetara joko dute.

5. GARAPENA

5. 1. Megalitotegien deskribapena eta kokapen geografikoa zein litologikoa

Hilobiratzeek bilakaera bat jarraitzen dutela jakinda, Gipuzkoako IE (3. irudia) eremuko hilobiratze horien datu bilketa (deskribapena, kokapena, etab.) garatuko dugu, euren arteko ezberdintasunak aztertzeko. Aipatzekoa da *megalitotegi* hitzak bere baitan hartzen duen osotasuna. Monumentu megalitiko hitzarekin ezagutzen

diren eraikuntza guztiak, unitate kontzeptual bati erreferentzia egiten dioten bitartean, megalitotegia banaketa geografikoengatik sailkatutako mugak dira, ibaien, bailarek eta mendikateen arteko bereizketan oinarritzen da.




3. irudia: Gipuzkoako mapa eta ikerketa eremua.

1- ADARRA-OINDI-MANDOEGI

Gipuzkoako IEko megalitotegien azterketa garatzerako orduan, bere hegoaldean kokatzen den Adarra-Oindi-Mandoegirekin hasiko gara. Hau H-I norabidean hedatzen da eta 21 hilobi monumentuk eratzen dute, zehazki, 4 trikuharri, 16 harrespil multzo, bi zista, egitura tumular bat zein zutarri batek.

Urumea eta Oria ibaien banalerroan kokatzen diren hauek Bortzirietako mendigune paleozoikoaren mendebaldeko sektorera (Erreñotzu) mugatzen dira. Litologiari begiratuta, Bortzirietako eskisto segida garatzen da, hauen gainean, *kuartzo* feldespatodun hareharri diskordanteak eta Permotriasiarko konglomeratuak azaleratzen dira (Meaza *et al.*, 1996). Inguru honetan dauden monumentu megalitikoek dagokionez, esan dezakegu, Otsolepo eta Altxistako material paleozoikoen gainean daudela eta bertako harriak erabili direla horiek eraikitzeko. Mulisko Gaina, Oindi, Pozontarriko Lepoa eta Aballarri aldiz, Bundsainsteineko kuartzo feldespatodun hareharrietan kokatzen dira.

Eremu zehatz honetan higadurak lan handia egin du eta horrenbestez desegiteak nagusi izan dira, sare hidrografikoan bertan baitago txertatuta. Horrek azkeneko erdi mailako mendiz osatutako paisaia bat azaleratzen du. 500 metro baino gutxiagoko distantziara erreka eta ibaien iturburuak kokatzen dira, hala, megalito hauek baliabide naturalen ondoan kokatzen zirela ondoriozta dezakegu.



4. Irudia: Adarra-Oindi-Mandoegi megalitotegia. 1. Deskarga, 2. Oindi, 3. Mulisko Gaina, 4. Pozontarriko Lepoa, 5. Arleorko Zabala, 6. Aballarri, 7. Marizulo, 8. Elurzulo, 9. Amunola, 10. Tximista, 11. Tximista Egia, 12. Eteneta I, 13. Eteneta II-III., 14. Usabelartza, 15. Ezioko Soroa, 16. Ezioko Tontottra, 17. Otsolepo, 18. Altxista, 19. Altxista, 20. Unamene, 21. Etzela E, 22. Etzela, 23. Etselako Arritxuriak.

Megalitotegian gune ezberdinak bereizten dira: Oindi (783 m), Adarra-Unamuno eta Ezio. Inguru horretan, baxuago, Atxelitun gailurraren (408 m) magalean, gailurretik 500 m-ra Marizulo izango genuke, megalitismoaren hasieran garaikideak diren bi hilobiratze une dituen lekua (Neolitoko gizabanako bat eta Kalkolitoko beste batzuk).


Hilobi-monumentu zaharrenak –trikuharriak eta zistak edo harkutzak- Oindi inguruan (Pozontarri trikuharria eta nahiko urrun Oindi zista, 900 m-ra) kokatzen dira, beste bat Adarra iparraldean (Aballarri trikuharria) eta bi nahiko aldenduak Zaburu inguruan (Otsolepo eta Altxista trikuharriak). Euren artean haustura topografikoen ondorioz bananduta agertzen dira eta gainera tarteko distantziak nahiko handiak dira, kasu guztietan >2.0 km baino gehiago. Trikuharriak bere hurbileneko tontorretik nahiko urrun aurkitzen dira (600 m), ikuseremua aldakorra da, oso mugatua batean (Pozontarri) eta hedadura zabalagoa besteetan (Altxista eta Otsolepo).









Megalitotegi honetan eraikitako ondorengo hilobi-egiturak harrespilak ditugu. Hauek trikuharriak baino altuxeago daude eta antzinagoko hilobi-monumenturik ezagutzen ez den mendi inguruetan kokatzen dira. Adibidez, Otsolepo trikuharritik 1.4 km-ra daude Eteneta I-II harrespilak, Pozontarriko Lepoa trikuharritik (nahiz eta L. Del Barrioren (2016) azken ikerketek Eteneta inguruan beste egitura bat dokumentatu), 1.3 km-ra Mulisko Gaina edota Arleorko Zabala harrespilak eta Aballarritik (trikuharria) 800 m-ra Arleorko Zabala eta Amunola salbuespenak Altxistako trikuharria eta harrespila, eta Mulisko Gainako zista eta harrespila dira. Azken hauek inguruaren kudeaketaren eta aprobetxamenduaren jarraipena adieraziko lukete, gainontzekoak berriz libre egongo liratekeen eremuetan ezarriko lirateke.








Harrespilak, mapan argi ikusten den moduan (*ikus 3. irudia*), harrespil bat baino gehiagok osa ditzaketen multzo txikietan banatzen dira, batasuna osatuz eremu berean, baina hala ere euren arteko tartea gutxienez 1.0 km-koa da. Unamunoko (886 m) tontorraren inguruko harrespilen (Unamene, Etzela M, Etzela eta Etzelako Arritxuriak) arteko distantzia gutxi gorabehera hori da.

Ondoren Altxistako trikuharria eta harrespila ditugu, 3 km-tara eta beste 2 iparalderantz eginda, Adarra tontorraren inguruan (819 m) Eteneta I-II harrespil multzoa eta Eteneta III hilobi tumularra dugu, zeina 800 m-tara Tximistako Hegia, Tximista, Elurzulo eta Amunolako taldetik ezarriz. Azken eremura iritsi aurretik, Aballarri trikuharria eta Arleorko Zabala harrespilak ditugu. Azkenik 1.8 km-tara, eta Oindi tontorra inguratuz ditugu Pozontarriko trikuharria, Oindiko harkutxa, eta Mulisko Gainako zista eta harrespila, 600 m-tara kokatuz hurrenez hurren (Peñalver, 1987; Peñalver, *et al.*, 1996)

Euren artean distantzia luzean kokatzen dira, nahiz eta euren arteko distantziak 1500 m-tara ez diren iristen. Altuerak ere aldatzen doaz eta gorabeherak dira nagusi. Hala ere eta mapan argi ikusten den moduan (3. irudia), talde txikietan banatzen dira, batasuna osatuz eremu berean. Lau eraikuntza multzo asko jota ikuseremu berdinean kokatzen dira, ondoren beste talde batetik 1.0 km-tara kokatuz. Esate baterako lehenik eta H-I norabidean, Unamene, Etzela M, Etzela eta Etselako Arritxuriak kokatzen dira. Ondoren Altxistako trikuharria eta harrespila ditugu. Iparralderantz eginda Eteneta I-II-III multzoa dugu, zeina 800 m-tara Tximistako Hegia, Tximista Elurzulo eta Amunolako taldetik ezarriz. Azken eremura iritsi aurretik, Arleorko Zabala eta Aballarri ditugu, azkenik Mulisko Gaina, Oindi eta Pozontarriko Lepoko taldetik 10 m-tara kokatuz hurrenez hurrenez.

Adarra-Oindi-Mandoegi	Mota (4. eranskina)	Kronologia	Iturbur. Distantzia	Punt. Alt. Dis.	Litolog. (5. eranskina)	Aurkikuntzak eta Materialak
Pozontarriko Lepoa (385 m)		Kalkolito	100 m	757 m	2	Harri-industria: txorten eta hegaldun 7 gezi-punta; zeharkako sorbaldun zatiki 1; ijelki ukitu zati 1; printza ukitu 1; 3 printza. Zeramika: ontzi oboideo baten zatiak; ontzi baten zati itxuragabekoak. Bestelakoak: kuartzo-kristal 1; okre zati 1. L. Peñak aurkitu zuen 1950ean eta, J. M. Apellániz eta J. Altunak industu 1965ean.
Aballarri (545 m)		Neolito-Brontze	300 m	709 m	2	J.M. Barandiaranek eta M. Labordek aurkitu zuten 1963an. Ez da industu.
Otsolepo (677 m)		Neolito-Brontze (identifikatu gabea)	50 m	1800 m	16	J. Altuna eta K. Mariezkurrenak aurkitu zuten 1978an. Ez da industu.
Altxista (675 m)		Neolito-Brontze (i.g.)	750 m	2870 m	16	J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1923an. Ez da industu.
Mulisko Gaina -4 harrespil, zista bikoitz 1, zutarri 1 eta zehaztu gabeko 2 egitura- (415 m)		2. 630 ± 90 urte B. P. (Burdin Aroa)	700 m	914 m	2	Harri-industria: 4 marruska; zulagailu 1; zulakaitz 1; bizkardun punta 1; printzatu 1; 2 ijelki-zati; 116 printza. Bestelakoak: egur-ikatz zati txiki ugari; objektu berriak. J. M. Hernandezek aurkitu zuen, 1956ean, harrespil 1eko lekuko nabarmenena. 1976ean. L. Millanek harrespil 1a eta 2a, eta 1978an, L. del Barriorekin harrespil 3a eta zutarria. Multzoa X. Peñalverrek, 1983-85 tartean, industu zuen eta ondoren zaharberritu egin zen.

Arleorko Zabala -4 harrespil- (535 m)		Burdin Aroa	450 m	725 m	2	L. del Barriok eta L. Millanek aurkitu zuten 1978an. Ez da industu.
Elurzulo -Harrespil tumular 1- (604 m)		Identifikatu Gabea	200 m	480 m	2	L. Peñak aurkitu zuen 1951an. Ez da industu.
Amunola -Harrespil tumular 1- (482 m)		Burdin Aroa	300 m	1018 m	2	L. Zalduak aurkitu zuen 1995an. Ez da industu.
Tximista -Harrespil 1- (740 m)		Burdin Aroa	600 m	532 m	2	I. Gaztelu-k aurkitu zuen 1995n. Ez da industu.
Tximistako Egia -5 harrespil, horietako 3 tumularrak- (785 m)		Burdin Aroa	800 m	423 m	2	Harrespil 1a eta 2a L. Peñak aurkitu zituen 1951ean. eta gainontzekoak, 1978an, L. del Barrio eta L. Millanek. Ez dira industu.
Eteneta -2 harrespil eta zutarri 1- (704 m)		Burdin Aroa	300 m	803 m	2	L. Peñak urkitu zuen 1951an harrespil multzoa eta J. Altuna eta K Mariaezkurrenak 1978an zutarria. Ez da industu.
Eteneta II -4 harrespil- (713 m)		Burdin Aroa	200 m	803 m	2	L. Peñak aurkitu zituen 1951an 1a eta 4a harrespilak. L. del Barriok eta L. Millanek berriz 1978an 2a eta 3ª harrespilak. Ez dira industu.
Eteneta III (704-713 m)		Identifikatu Gabea	200-300 m	803 m	2	L. del Barriok aurkitu zuen 2016an, iguruko landare estakia kentzen zen bitartean identifikatu zuen. Ez da industu.

Altxista -8 harrespil- (670 m)		Burdin Aroa	750 m	2880 m	2	J. M. Barandiaranek, 1923an 1 eta 6a aurkitu zuten. L. del Barrio, L. Millan eta J. J. Otxoak gainontzekoak aurkituko dituzte 1982 eta 1989 artean. Ez dira industu.
Etzela M -Harrespil 1- (765 m)		Burdin Aroa	380 m	465 m	2	J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1923an. Ez da industu.
Etzela -16 harrespil, horietako 8 tumularrak- (780 m)		Burdin Aroa	550 m	970 m	2	J. M. Barandiaranek, 1923an, 1, 2, 3, 4, 12 eta 13a aurkitu zituen. Gainontzekoak I. Gaztelu, L. Millan eta J. J. Otxoak aurkitu zituzten, 1989 eta 1990 artean.
Etzelako Arritxuriak -2 harrespil- (785 m)		Burdin Aroa	480 m	1160 m	2	2a J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1923an. Harrespil 1a I. Gazteluk aurkitu zuen 1990ean. Ez dira industu.
Unamene -3 harrespil, horietako 1 tumularra eta beste 2 tumulo- (755 m)		Burdin Aroa	640 m	1383 m	2	5a J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1923an; harrespil 2a eta 3 eta 4 tumuluak L. Peñak 1946ean, eta L. del Barrio eta TX. Ugaldek harrespil 1a 1981ean. Ez dira industu.
Deskarga - Harrespil multzoa, egun baten egitura ikusgai- (715 m)		Burdin Aroa	200	2100 m	2	A. Gomezek aurkitu zuen 2001an. Ez da industu.
Ezioko Soroa -4 harrespil- (460 m)		Burdin Aroa	400 m	615 m	2	Harrespil 1a eta 2a J. M. Hernandez Gurmendi eta L. P. Peña Santiagok aurkitu zituzten 1979an; harrespil 3a, L. del Barrio eta TX. Ugaldek 1981ean; harrespil 4a, L. del Barrio eta A. Urizek 1988an. Ez dira industu.

Ezioko Tontorra -4 harrespil, beste bat tumularra egun arrastorik ez dagoena- (483 m)		Burdin Aroa	240 m	520 m	2	L. del Barrio eta TX. Ugaldek aurkitu zuten 1981ean. Ez da industu. Harrespil 5a baso-pista batek suntsitu zuen 1989ean.
Oindi (540 m)		Zista barnean: 4000 ± 80 urte B. P.	950 m	395 m	2	Harri-industria: suharri-printza 1. J. Gutierrezek aurkitu zuen 1980ean eta 1987an industu X. Peñalverrek.
Usobelartza (615 m)		Identifikatu Gabea	300 m	2100 m	2	Donostiako ADA Taldeko kideek aurkitu zuten 1982an. Ez da industu.

1. Taula: Adarra-Oindi-Mandoegi megalitotegiko datu orokorrak (Informazio iturria: Altuna *et al.*, 1990)

2-IGOIN-AKOLA-TXORITOKIETA

Itsasorako bidean, aurreko megalitotegiari jarraiki Igoin-Akola-Txoritokieta dugu. Bi megalito-gune gisara ere aztertua izan da eremu hau; batetik Igoin-Akolako megalitotegia, 12 trikuharriz eta bi *zistaz* osatzen dena, era berean beste bi azpimultzotan banatua dagoena. Bestetik berriz, Txoritokietakoa, 5 trikuharriz eta zutarri batez osatua.


Bortzirietako mendigune paleozoikoaren periferiako erliebeetan azaleratzen da, zehazki, Landarbasoko kareharri tupatsu gris eskistotsuen (karedun *flycha*) gainean. HMrantz, multzo osoa Ereñotzuko failan zehar aurkitzen diren Behe eta Erdi Triasikoko harea eta konglomeratu materialetan luzatzen da, zeinak erabiliak izango diren hilobiak eraikitzeko (Meaza *et al.*, 1996). Eremu honetan osoan zehar EIE-HM norabidea jarraitzen duen erliebea da nagusi morfologiaren ikuspegitik. Denean garaiera txikiko tontorrak dira, inon ez baitira 450 m-tik gora kokatzen, eta malda eta gailur definitu samarra erakusten dute, ibai sareak nabarmen ebakitzen dituen. Landarbaso eta Usoko errekek nabarmentzen dira, goi-ibarra material hauetan txertaturik daukan Oiartzun ibaiaren adar batzuekin batera. Zonalde honetako egiturak inguruko material gogorrekin eraikiak daude, horrek kontserbazioa ahalbideratu du (Gipuzkoako Batzar Nagusiak, 2012).

Megalito guztiak 146 eta 331,5 m bitarteko garaieran kokatzen dira, zeinak 265,5 m-ko batez besteko garaiera ematen digun. Kota hau nahiko baxua da baina kontuan hartu behar dugu, Landarbasoko gailur altuena Igoin dela (455,7 m) eta Akola inguruan berriz, Arritxietako gaina (371,4 m).

Megalitoen espazio banaketaren bisualizazio orokorraren, gutxienez bi azpimultzoen bereizketa bat nabaria dela erraz igartzen da, lehenengo monumentu zaharrenak aztertuz, hots, trikuharriak. Batetik, Landarbasoko azpitaldea dugu, zeinetan monumentu megalitiko gehienak Igoin mendiaren IMko isurialdean kokatzen diren. Hauek bere baitan garaiera galtzen doaz, bailarara gertutasuna hartzen duten heinean, I-H norabidean urruntzen doaz gailurraren ardatzetik. Hala Landarbaso I eta II gailurretik oso hurbil kokatzen dira (zuzenean 300-375 metro inguruko tartera, eta hartatik 175 bat metro beherago bere kota), Landarbaso III eta IV jada urrunago eta beherago ageri zaizkigu, hegoalderantz egiten duten bitartean (450-500 m ingurura, eta gailurra baino

183 eta 228 m beherago); azkenik Landarbaso V, VI eta VII puntu goretik urrutien kokatzen dira, 750-875 m-ko distantziara eta garaiera 285-308 m beherago.

Hala ere aipatu behar da beste trikuharriek (Igoingo Lepoa I eta II) jarraitu egiten diotela Igoin eta Arritxietako Gainaren (371,4 m) arteko gandorrari. Bestetik ere, Arritxieta eta Akolako Lepoa II, Arritxietako Gainetik beherantz egiten duen hego-ekialdera begirako ezproi batean ezartzen dira. Akolako Lepoa I mendi-lepo batean dago, Sagastietako Lepoa I eta II, berriz, bi gailurren arteko lepo batean, tontorretako batetik 315-320 m-ra, Arritxietako gainetik hurbil mantentzen era berean.



5. Irudia: Igoin-Akolako megalitotegia. 1. Mariola, 2. Langagorri, 3. Arreginea, 4. Ermañalde, 5. Landarbaso V, 6. Landarbaso IV, 7. Landarbaso III, 8. Landarbaso II 9. Landarbaso, 10. Igoingo Lepua I, 11. Igoingo Lepua II, 12. Arritxieta, 13. Akolako Lepua I, 14. Akolako Lepua II, 15. Sagastietako lepua II, 16. Sagastietako Lepua.


Trikuharri hauen arteko zertzelada batzuk aipatzearen, euren arteko distantziari dagokionez halako erregulartasun bat ikusten da, eta banaketa patroia desberdinak ezar daitezke honetan. Kilometro inguruko distantzian kokatutako trikuharri multzo bat Igoi mendia inguruan kokatzen da (Landarbaso I-V eta Igoingo Lepua I-II); bigarren bat 750 m inguruko tartetan antolatuta dagoena, hots, Arritxurieta mendia inguruan (Arritxieta eta Akolako Lepua I-II), eta hirugarren bat, Akola mendi inguruan (Sagastietako Lepua I-II).

Eremu horretako mugan nahiko sakabanatuta beste multzo batzuk daude: Santiagomendiren gandorrea Arregiñea eta Ermañaldeko harrespilak, Txoritokieta HEko hegalean, uren banalerroan hain zuzen ere, gailurretik 200 m hutsera dagoen zutarritik 400 m-tara Aitzetako Txabalako trikuharria, izen bereko eremuan, eta 100 m-ra Berrozpingo trikuharriak.



Megalitotegiko eraikuntzen arteko erlazioari jarraiki, euren arteko bisualizazio bat garatzen da tokian tokiko zonetan, hau da, kokapenari erreparatuz gero taldekatutako megalitoak agertzen dira, bateratasun bat eskainiz eremu zehatz horretan.









Aipatu moduan lehenik Akolako megalitoak ditugu, euren arteko distantziak oso eskasak dira, 100 eta 900 m-ko tartean daude. Arritxietako gainaren gandorrea. Bigarrenik eta Eko norabidea hartuz Igoingo multzoa dugu. Eremu honetan ere eraikinen arteko distantzia oso eskasa da, 200-1000 m-tako distantzian daude guztiak nahiz eta kasu honetan bi hileta-eraikin gandorrea kokatzen diren, eta 5 trikuharri maldan behera. Hala ere, bakarka agertzen diren eraikuntzak ere egon badaude, Langagorri eta Mariola kasu (Peñalver, 1998).









Azkenik Txoritokietako megalitotegian, eurak beraiek osatzen dute bateratasun bat megalitotegi gisa, 0.133 km²-ko azalera batean hedatuz. Eraikuntza berriagoetan ere Arregiñea eta Ermañaldeko harrespilak ditugu zeinak trikuharri multzotik 2.0 km-tara kokatzen diren, trikuharrietatik haustura topografiko batez banatuz.





6. Irudia: Txoritokieta megalitotegia. 1. Berrozpin, 2. Berrozpin II, 3. Berrozpin III, 4. Berrozpin IV, 5. Berrozpin V, 6. Txoritokieta, 7. AitzetakoTxabala.

<i>Igoin-Akola-Txoritokieta</i>	Mota (4. erankina)	Kronologia	Iturbur. Distantzia	Punt. Alt. Dis.	Litolog. (5. erankina)	Aurkikuntzak eta Materialak
<i>Aitzetako Txabala (205 m)</i>		Neolito- Brontze (identifikatu gabea)	470 m	792 m	8	J. Elozegi eta A. Leibar-ek aurkitu zuten 1962an, eta J. M. Barandiaranek 1963an industu zuen.
<i>Arritxieta (335 m)</i>		Neolito- Brontze Aroa (i. g.)	500 m	330 m	2	J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1928an eta T. Atauri, J. Elozegi eta M. Labordek 1951an industu zuten.
<i>Akolako Lepua (300 m)</i>		Neolito- Brontze Aroa (i. g.)	300 m	541 m	2	Harri-industria: karraskailu zati 1; suharrizko 12 printza. Bestelakoak: 3 kuartzo-kristal; kuartzitazko uharriak; objektu berriak. J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1928an eta T. Atauri, J. Elozegi eta M. Labordek 1950ean industu zuten.
<i>Akolako Lepua II (315 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	400 m	509 m	7	J. Elosegik aurkitu zuen 1950ean. Ez da industu.
<i>Berrozpin (225 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	650 m	788 m	8	J. Blotek aurkitu zuen 1990an eta 1999 urte inguruan F. Zumalabek inguruan lanak egin zituen. Ez da industu.
<i>Berrozpin II (225 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	500 m	788 m	2	F. Zumalabek aurkitu zuen 1999an. Ez da industu.

<i>Berrozpin III (225 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	500 m	788 m	8	F. Zumalabek aurkitu zuen 1999an. Ez da indusketarik egin. 2000 urtean, ganbararen barnean, azalean, ukitutako printza 1 jaso zen.
<i>Igoingo Lepua I (315 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	800 m	300 m	2	J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1928an. Ez da industu.
<i>Igoingo Lepua II (324 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	50 m	290 m	2	J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1928an. Ez da industu.
<i>Landarbaso I (275 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	900 m	369 m	7	Harri-industria: aizkoratxo leundu 1; triangelu eskaleno 1; 3 ijelki; ijelki ukitu zati 1; ijelki zati 1; printza 1. Bestelakoak: uharri 1. J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1928an. T. Atauri, J. Elosegil eta M. Labordek 1950ea nindustu zuten.
<i>Landarbaso II (270 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	740 m	485 m	7	L. del Barriok aurkitu zuen 1977an. Ez da industu.
<i>Landarbaso III (265 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	700 m	1000 m	7	T. Ortegak aurkitu zuen 1982an. Ez da industu.
<i>Landarbaso IV (212 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	320 m	1048 m	7	F. Zumalabek aurkitu zuen 1983an. Ez da industu.
<i>Landarbaso V (160 m)</i>		Neolito- Brontze (i. g.)	120 m	1048 m	7	L. Millanek aurkitu zuen 1984ean. Ez da industu

Landarbaso VI (140 m)		Neolito- Brontze (i. g.)	200 m	1060 m	7	L. del Barrio eta TX. Ugaldek aurkitu zuten 1983an. Ez da industu.
Sagastietako Lepua (320 m)		Kalkolito	100 m	1300 m	2	Harri-industria: ukiera lauko gezi-punta hostokara baten Erdiko zati 1; karraskailu 1; printza ukitu 1; ijelki zati 1; 4 printza (1 galdua). Apaingailuak: hareharrizko, zintzilikario? errektangular baten zatia; upeltxo formako harrizko 3 kunder. Bestelakoak: 2 kuartzo-kristal; Objetu berriak. animalia-hezurak: ugazdunak: capra/ovis. T. Atauri, J. Elozegi eta M. Labordek 1950ean aurkitu eta industu zuten.
Sagastietako Lepua II (315 m)		Neolito- Brontze (i. g.)	800 m	56 m	2	Harri-industria: suharri printza 1. L. del Barrio eta N. Susperregik aurkitu zuten 1978an. Ez da industu.
Arreginea -Harrespil tumular 1- (235 m)		Burdin Aroa	80 m	1000 m	7	M. Izquierdo-k 1994ean aurkitu zuen. Ez da industu.
Ermañalde -3 harrespil tumular- (260 m)		Burdin Aroa	60 m	1000 m	7	L. del Barrio eta I. Gazteluk 2000 urtean aurkitu zuten. Ez da industu.
Langagorri (235 m)		Brontze Aroa	300 m	1000 m	7	1983an, X. Peñalverrek monumentu bezala katalogatu zuen.
Txoritokieta (270 m)		(i. g.)	800 m	346 m	8	L. Millanek katalogatu zuen lehen aldiz, 1981ean. Ez da industu.
Berrozpin IV (225 m)		Neolito- Brontze (i. g.)	700 m	511 m	8	M. Ceberriok eta J. Tapiak 2011an aurkitu zuten. Ez da industu.

Berrozpin V (225 m)		Neolito- Brontze (i. g.)	700 m	511 m	8	M. Ceberio eta J. Tapiak 2013an aurkitu zuten. Ez da industu
Mariola (225 m)		Brontze Aroa	70 m	1215 m	8	P. M. Soraluçek 1991an aurkitu zuen baina ez da 2008. urtera arte izendatuko M. Ceberio, J. Tapia eta O. Soroberen eskutik.

2. Taula: Igoin-Akola-Txoritokieta megalitotegiko datu orokorrak (Informazio iturria: Altuna *et al.*, 1990)

3-OIARTZUN

Distantziak aurrera eginda, gehiengan harrespil multzoak eraturako Oiartzungo megalitotegiarekin bat egiten dugu. Udalerritik Bianditzeraino doan igoera batean kokatzen dira, 18 harrespil-multzo eta trikuharri bat.

Mendizerra paleozoikoan dago Oiartzungo lurraldea, “Bortzirietako” eremuan. Bertan bi unitate ezberdintzen dira, batetik Aiako Harriak, material silizeoak eta metamorfikoak dituenak: arbelak, hareharriak eta konglomeratuak. Iparraldera goazen heinean hareharri eta buztinak agertzen dira zeinak Behe Kretaziar garaikoak diren, material zaharragoen inguruetan kokatzen dira, hareharri eta konglomeratuak kasu. Ere honetan ere bertako materialak erabiliko dituzte hilobiak eraikitzeko orduan (Meaza *et al.*, 1996).

Lehen begiradan Oiartzun inguruan azpimarratuko genukeena lehenengo gauza trikuharrien urritasuna da, soilik, Ginzabalgo trikuharria dugu, zeina bailara ireki batean kokatzen den, altuera baxuan (166 m). Bere inguruan ez da ezagutzen beste hilobi-egiturarik. Oiartzun inguruan, Azken Brontze eta Burdin Aroan ugaritzen hasten dira, baratzak edo harrespilak.

Hilobi berri hauek lurraldean sakabanatuta agertzen dira, erreka iturburuetatik hurbil guztiak 500 m inguruko distantziara, eta oso gutxitan benetako lerrokadura bat sortuz (Basate-Oianleku edota Zaria I-III). Euren arteko ikuseremuaren inguruan zenbait zertzelada emate arren, orokorrean megalitotegia garaiera galtzen doa Iparraldera egiten duen heinean. Hala ere eta beste megalitotegien antzera taldekatutako megalitoak agertzen dira, batasun bat emanez lurralde zehatz horri. H-I norabidean, Zaria I-II-III taldea dugu zeina 150 m baino gutxiagotan Kauso I-II taldearekin topo egiten duten. Hauek berriz 1000 m-tara Munerrerekin egiten dute topa, zeinak hurrenez hurren, Oianleku I-H eta Basate harrespilekin bat egiten dute. Ia 2000 m iparraldera eta metroak jaisten baina tontorren gandorrari jarraiki Arritxurietako zein Elorrietako Gainekin topo egiten dugu.

Azpimarratu behar da gune bakoitzak harrespil bat baino gehiago edukitzeko joera dutela (Egiarrek eta Oianlekuk 7 egitura bakoitzak). Beste ezaugarri bat azpimarragarria da multzoek altueran duten aldea, Algorrietako harrespil multzoa 177

m-tara kokatzen da eta Arritxulangainakoa berriz, 813 m-tara. Litekeena da baxuenetako asko desagertu izana baserrietako lanen ondorioz.


Harrespil-multzo batzuk elkarrengandik urruti dauden bezala beste batzuk oso hurbil daude, eta bere garaian abeltzain-talde berdinenak izan zitezkeen, nahiz eta gaur egun toponimiari jarraituz bi multzo ezberdin direla pentsarazi. Horrela Basateko harrespila (630 m), izen bereko mendiaren hegoaldeko hegalean kokatzen da, hain zuzen ere Oianleku (605 m) harrespil-multzotik 100 m-tara HE norabidean. Oianleku lepoaren IMko muturrean kokatzen da Oianleku I harrespila eta hortik 350 m-tara IM norabidean azaleratzen den tontor txiki batean, Oianleku H. Norabide berdina jarraiki Munagirre (780 m) tontorraren iparraldeko tontorretik 800 m-ra Munerreko harrespila dugu.

Arritxulangainako harrespila Irumugarrita (620 m) gailurrean kokatzen da, Goizueta Lesaka eta Oiartzungo udal barrutiak bat egiten diren tokian hain zuzen ere, hots, Bianditzeko (680 m) ardatz geodesikotik Iparralderantz. Arritxulangaineko iparraldeko saiheitsaldeko zabalgunean batean, inguruan nagusitzen den kuartzoko eremutik 200 metro iparralderantz kokatzen da Arritxurietako harrespil multzoa. Bertatik metro batzuk irabaziz, Arritxurietako Gainekoa aurki dezakegu. Irumugarrietako tontorraren Hmk saiheitsaldean kokatzen da Urkullu Txiki Egia harrespila.

Basateko harrespila (630 m), izen bereko mendiaren bizkarrean kokatzen da, hegoaldeko hegalean hain zuzen ere Oianleku (605 m) harrespil multzotik 100 m-tara H-E norabidean. Oianleku lepoaren IMko muturrean kokatzen da Oianleku I harrespila eta hortik 350 m-tara I-M norabidean azaleratzen den tontor txiki batean Oianleku H trikuharria kokatzen da. Oianleku Lepoaren barnean. Norabide berdina jarraiki Munagirre (780 m) tontorraren iparraldeko saiheitsaldean kokatzen den lepoan kokatzen da Munerreko harrespila, tontor horren eta Agiñakoaren artean (650 m).








Elkarren gertu dauden beste batzuk Kauso I eta II harrespilak dira, 140 m-tara bata bestetik Kausorogaña (600 m) eta Kausoro txiki tartean dagoen lepoan. Egieder lepoan, Egiar muinotik ekialderantz hain zuzen ere, Egiarko 7 harrespilak ditugu. Zaria






tontorreko hegalean kokatzen dira Uzpuru (565 m) muinotik metroak irabaziz doan heinean Zaria I, II eta III harrespilak.



7. Irudia: Oartzun megalitotegia. 1. Algorrieta, 2. GuardikoLepoa, 3. Egiar, 4. Urkullu Txiki Egia, 5. Arriturietako Gaina, 6. Elorrietako Kaskoa, 7. Oianleku H-I, 8. Basate, 9. Munerre, 10. Kauso I, 11. Kauso II, 12. Zaria I-II-III, 13. Arritxulangaina.

Oiartzun	Mota (4. eranskina)	Kronologia	Iturbur. Distantzia	Punt. Alt. Dis.	Litolog. (5. eranskina)	Aurkikuntzak eta Materialak
Algorrieta -Harrespil tumular 1- (177 m)		Burdin Aroa	100 m	2000 m	2	José León Kasabon Amigorenak 2010an aurkitu zuen. Ez da industu.
Arritxulangaina -10 harrespil eta 2 tumulo- (813 m)		Burdin Aroa	700 m	900 m	9	Lehenengo monumentuak P. Soraluek aurkitu zituen 1909an. Ondorengo urteetan, L. Peña Basurtok, L. del Barrio, L. Millan eta TX. Ugaldek multzoa haunditu egin zuten aurkikuntza berriekin. Ez da industu.
Arritxurrieta -Harrespil 1- (385 m)		Burdin Aroa	350 m	100 m	10	J. M. Garcia eta J. Lekuonak 1981an aurkitu zuten. Ez da industu.
Arritxurietako Gaina -Harrespil multzoa, egun baten egitura ikusgai- (458 m)		Burdin Aroa	430 m	1100 m	10	2000 urtean L. Rodriguezek abisua eman zuen. Agian 1909n P. Soralue-k eta 1960n L. Peñak Arritxurietako bizkarrean aurkitutako berberak izan zitezkeen. Egun arte desagertutzat ematen ziren.
Basate -6 harrespil- (625 m)		Burdin Aroa	500 m	300 m	9-10	L. Peñak aurkitu zituen 1948an, 6. harrespila ezik, J. A. Garciak aurkitua 1983an. Ez dira industu
Egiar -7 harrespil- (324 m)		Burdin Aroa	50 m	2500 m	2	P. Soraluek aurkitu zituen 1909an, orduntxe bertan indusketari ekinez. Hilabete batzuk geroago, urte berean, T. de Aranzadirekin, beste indusketa ekinaldi bat egin zuen. 1967an J. Altunak hauetako batzuk industu eta berriztatu zituen.

Elorrietako Gaina -Harrespil tumular 1- (399 m)		Burdin Aroa	240 m	200 m	10	J. Argomanizek 1986ean aurkitu zuen. Ez da industu
Gainzabal (166 m)		Neolito-Brontze Aroa	200 m	2020 m	12	J.A. Torresek 1996an aurkitu zuen. Ez da industu.
Guardiko Lepoa -Harrespil 1- (345 m)		Burdin Aroa	350 m	2000 m	2	I. Txintxurretak 2010an aurkitu zuen. Ez da industu.
Kauso I -2 harrespil, horietako bat tumularra- (615 m)		Burdin Aroa	120 m	1100 m	9	L. del Barrio eta TX. Ugaldek 1981ean aurkitu zuten. Ez da industu.
Kauso II -2 harrespil tumular- (638 m)		Burdin Aroa	340 m	900 m	9	L. del Barrio eta TX. Ugaldek 1981ean aurkitu zituen. Ez da industu.
Munerre -5 harrespil- (656 m)		Burdin Aroa	280 m	836 m	9-8	Aurreneko laurak L. Peñak aurkitu zituen 1948an. 5. berriz, L. del Barrio eta Tx. Ugaldek 1981ean. Ez dira industu.
Oianleku I -7 harrespil- (605 m)		II Burdin Aroa	280 m	550 m	9-10	Harrespila 1a. Azaleko zonaldea: Harri-industria: Igitai-ale 1; marruska 1; printza ukitu 1; printza soilak. Zeramika: zati itxuragabekoak. Bestelakoak: uharri esferikoak, egur-ikatza. Giza-hezurak: zati kiskaliak. Sakonean: Metala: brontzezko eraztun 1; errailadun botoi erdiesferiko 1. Bestelakoak: bertako estratu harritsuzkoak baino handiagoak diren beste bi harri. Giza-hezurak: zati kiskaliak. Harrespil

						<p>2a: Harri-industria: marruska diskoidal 1. Giza-hezurak: zati kiskaliak, gutxienez gizabanako bati dagozkienak.</p> <p>P. Soraluzek aurkitu zuen 1909an multzoa. 1. eta 2. egitura J. Altunak eta P. Aresok industu zituzten 1976ean. Gainontzeko monumentuak ez dira industu.</p>
Oianleku H -2 harrespil- tumular- (608 m)		Burdin Aroa	400 m	500 m	9-10	L. Peñak aurkitu zuen 1948an. Ez da industu.
Urkullu Egia Txikia -4 harrespil- (373 m)		Burdin Aroa	250 m	700 m	2	J. Argomanizek eta L. del Barriok aurkitu zuten 1986ean. Ez da industu.
Zaria I -2 harrespil- (565 m)		Burdin Aroa	708 m	600 m	8-10	Lehenengo egitura 2009an aurkitu zuten C. Aseginolaza, L. del Barrio eta I. Liasok. 2010an berriz L- Millan eta I. Txintxurretak iparralderago beste egiturak kokatu zituzten.
Zaria II -2 harrespil- (565 m)		Burdin Aroa	800 m	550 m	8-10	C. Aseginolaza, L. del Barrio eta I. Liasok 2009an aurkitu zuten.
Zaria III -2 harrespil- (565 m)		Burdin Aroa	600 m	400 m	8-10	C. Aseginolaza, L. del Barrio eta I. Liasok 2009an aurkitu zuten.

3. Taula: Oiartzun megalitotegiko datu orokorrak (Informazio iturria: Altuna *et al.*, 1990)

5. 2. Sintesia eta diskusioa

Gipuzkoako monumentu megalitikoaren kokapenaren zergatia eta lurralde antolaketan sakontzea zaila suertatzen da. Kausa natural zein jatorri antropikokoaren ondorioz galdutako aztarnez jabe izan behar da prozesu honetan zehar. Ingurunearekiko harremana eta eurenarteko espazioaren banaketa mugatzen duten faktore anitzen inguruan jardungo dugu honetan. Horrek ikerkuntza erakargarri bihurtzen du eta geografia eta arkeologiaren arteko erlazioa bilatzea beharrezkoa da honetan. Aztertu moduan, ikertutako eremuan trikuharriak eta harrespilak dira gailentzen diren egiturak; gainera eremu oso zehatza denez, aurki daitezkeen monumentu kopurua ez da oso handia. Horrela, Gipuzkoako IEko eremuan 25 trikuharri, 35 harrespil multzo, 4 harkutxa, 3 egitura tumular eta 3 zutarri zenbatuta daude. Kareharri hain gutxi dagoenez soilik bi hilobi-haitzulo ezagutzen dira. Euren banaketan ezberdintasun nabarmena dago megalitotegien artean. Gainera kontuan hartu behar da, kokapen mapa bat aztertzerako orduan, puntu berdinean bikoizketak ager daitezke eta horrek ere ikerketa zaildu egiten du.

Egindako ikerketan murgilduta, **hilobien ehuneko handi bat garaiera ezberdineko** mendietan kokatzen da, gehienetan eremu altuenetan izaten dira, nahiz eta kasuan kasu, tontorrek ez diren garaiera handikoak. Hala ere antzeko zerbait ere gertatzen da beste zonalde batzuetan ere, Huescan eta Kantabrian ere (Teira, 1994; Peñalver, 2005b; Edeso *et al.*, 2012). Trikuharriak harrespilak baina baxuago daude orokorrean, 140 m eta 670 m tartean; harrespilak berriz salbuespenak salbuespen, 400 m eta 800 m inguruan kokatzen dira.

Askotan muino eta tontor bereizgarrietan ezartzen dira (Basate -Oiartzun-), lurralde osotasunean ikusgarriagoa suertatuz, beste kronologia bateko monumentuen ondoan (Mulisko Gaina -zista eta harrespilak-, Altxista-trikuharria eta harrespila-) edota ibilbide naturalen ertzetan (Landarbaso, Igoingo Lepua I-II, Arritxieta, Akolako Lepua I-II eta Sagastietako Lepua I-II mendikatearen gandorrean kokatuz).

Hilobi-egitura hauen **banaketa orekatua ez dela ondoriozta daiteke**, zenbaitetan trikuharriak nagusituz eta alderantziz ere. Adarra Oindi Mandoegin 16 harrespil multzo bereiz daitezke, 4 trikuharri eta bi zisten aurrean. Igoin Akola Txoritokietan, kontrako egoerarekin topo egiten dugu, 2 harrespil multzo eta zista batekin, 20 trikuharri kokatzen dira. Oiartzunen berriz ere, 17 harrespilekin, trikuharri bakarra.

Adarra Oindi Mandoegiko megalitotegiak H-I norabidean altuera irabazten doa (7.

irudia),

kronologia

ezberdineko

hilobiak elkarren

ondoan agertuz.

Oindi eta

Zorroztarri

mendien inguruan

trikuharri, zista

eta harrespil

bana agertzen

zaizkigu hauek

izango dira Oindi,

Mulisko Gaina eta Pozontarri.

Hurrengo lepoan 500 m


inguruan trikuharri bat eta

harrespil bat. Aballarri eta Adarra tontorren artean lau harrespilen multzoa agertzen


zaigu. Iparralderantz eginez berriz, hiru harrespil. Adarra eta Zaburu artean bi trikuharri

eta harrespil bat eta bukatzeko Etzela eta Unamuno artean lau harrespil. Neolito eta

Brontze Aroko hilobiak zona baxuagoetan agertzen dira, garai zaharragoetan bailara




8. irudia: Adarra-Oindi-Mandoegi megalitotegia. 1. Deskarga, 2. Oindi, 3. MuliskoGaina, 4. Pozontarriko Lepoa, 5. Arleorko Zabala, 6. Aballarri, 7. Elurzulo, 8. Amunola, 9. Tximista E, 10. TximistakoEgia, 11. Eteneta I, 12. Eteneta II, 13. Usabelartza., 14. Ezioko Soroa, 15. Ezioko Tontorra, 16. Otsolepo, 17. Altxista, 18. Altxista, 19. Unamene, 20. Etzela M, 21. Etzela, 22. Etselako Arritxuriak.



9. irudia: Igoi -Akola megalitotegia. 1. Mariola, 2. Langagorri, 3. Arreginea, 4. Ermañalde, 5. Landarbaso V, 6. Landarbaso IV., 7. Landarbaso III, 8. Landarbaso II, 9. Landarbaso, 10. Igoingo Lepua I, 11. Igoingo Lepua II, 12. Arritxieta, 13. Akolako Lepua I, 14. Akolako Lepua II, 15. Sagastietako lepua II, 16. Sagastietako Lepua.


inguruak nagusitzen baitziren eta tontor aldeak landaretzaz beteak agian, aurreragoko garaietan populatuko ziren. Kasuan kasu, trikuharri batzuk agertzen baitira altuera handiagoan. Baina Burdin Aroko hilobiak, berriz, eremu altuagoetan agertzen dira orokorrean. Mapan azter daitekeen moduan, garai ezberdinetako hilobiak ere elkarren ondoan agertzen dira, aurrerago atertuko dugun moduan, kolonizazio (6. *eranskina*) prozesu posible bati atxiki diezaiokeguna (7 *irudia*).

Igoi Akolan berriz aldaketa nabariak ageri dira (8. *irudia*), trikuharriak nagusitzen dira harrespilen aurretik, hauek, mendi gandra hurbiletik jarraituz kokatzen dira. Brontze-Aroko zistak (Mariola eta Langagorri) eta Azken Bronze eta Burdin Aroko harrespilak (Arreginea eta Ermañalde) berriz ondoko magaletan kokatzen dira, biak nahiko hurbil bata bestetik. Txoritokietan ere, horrelako zerbait gertatzen da, trikuharriak nagusitzen dira, altuenean kokatzen direlarik. Bata bestetik oso gertu kokatuz, aurrerago aztertuko dugun arrazoi ezberdinen ondorioz (8. *irudia*). Tontorrek aurrera eginda, Oiartzunera iristen gara (9. *irudia*), panorama guztiz aldatzen da honetan, harrespilak nagusitzen dira trikuharrien aurretik. Honetan ere altueran ezberdintasunak nabariak dira, harrespilak mendien gorako aldean kokatzen dira, eta trikuharria berriz (Gainzabal), beheerago (10. *irudia*).




10. irudia: Oiartzun megalitotegia. 1. Algorrieta, 2. GuardikoLepoa, 3. Egiar, 4. Urkullu Txiki Egia, 5. Gainzabal, 6. Elorrieako Gaina, 7. Oianleku H-I, 8. Zaria I-II-III, 9. Munerre, 10. Kauso I, 11. Kauso II, 12. Basate, 13. Arritxulangaina.

Horren harira, hasiera batean Adarra-Oindi-Mandoegi eta Oiartzungo megalitotegietan harrespilak gehiago dira (16 eta 17 hurrenez hurren) Igoin-Akola-Txoritokietakoekin (2) alderatuz. Kolonizazio prozesu baten ondorio izango zirela pentsa daiteke, batzuetan Brontze Aroan (Langagorri, Oindi) edo Burdin Aroan (Mulisko Gaina, Egiar...) gertatuko dena. Hasiera batean eremu baxuagoak ustiatuko zituzten, horrela talde abeltzainek bailara inguruetatik mendialdeetara bertaratuko ziren bazkarako baliabideen (larreak, fruituak, etab.) bila. Agian hasierako garaietan, biztanle kopurua txikiagoa izango zen, zonalde Burdin Aroan populatuz, abeltzaintzaren kudeaketa nagusituz (Edeso *et al.*, 2012). Pirinioaren ardatzera gerturatzen goazen heinean, eta batzuetan altueran igoz harrespilak nagusitzen doaz. Ondorengo grafikan ikus dezakegun moduan, hasiera batean, hots Neolito-Kalkolitoan eremu batzuk ustiatzen dira gehien bat, nahiz eta ondorengo garaiko zantzuak ere aurkitu. Eta eremu geografikotik mugitzen garen heinean, kolonizazioa deitu diezaiokegun prozesu baten ondoren beste zona batzuk erabiliko ziren (1. grafika).




Zonalde hau, **abeltzaintzarekin lotua egon da** abereentzako baliabideen bila mendikateetako puntu garaietara jotzen zutelako, urtaroen araberako baldintzak aprobetxatuz. Garai hain zaharretan transhumantziaren inguruan hitz egiteak zalantzak sortarazten ditu, zehaztu beharra dago, garaiko transhumantziak noski abeltzainen eta abelburuen mugimendu soilei deritzela, zeinak zonalde batetik bestera mugituko ziren. Eremu bakoitzak errekurtso ezberdinak eskainiko zituztelarik. Seguruaski, hasiera batean behintzat, mugimendu horiek ez ziren hain zehatzak, gainera kontuan hartuta leku-aldaketak ez zirela errazak suertatuko giza taldeen arteko elkar-borrokak zirela medio (Edeso *et al.*, 2010). Abeltzaintza jarduera horren gertutasunaren froga da historikoki eta gaur egun oraindik horren adibide dugun, Mulisko Gainako zista eta



11. irudia: Mulisko Gainako zista eta saroiak (1 eta 2), udalerrien banaketa lerroarekin.

harrespilaren ondoan, abereentzako prestatuko saroiak. Hauek historiaurreko elementuak ez izan arren, inguruan garatuko den lurraldeen baliabideen kudeaketarako ohitura horiek, Metalen Arora garamatza. Garai historikoetan berrerabiliko diren elementuekin uztartuz (10 irudia).


Hauen kokapenaren harira, eta aurretiaz emandako zertzeladekin jarraituz, inguru berdinean, **zenbaitetan bi trikuharri kokatzen dira.** Hauek talde ezberdinen arteko lehiaren erantzule izan daitezke edota lurralde beraren jarraipenaren froga



12. irudia: Pozontarriko Lepoa trikuharrian aurkitutako gezi puntak (Apellaniz *et al.*, 1966).

gisa Indusketetan aurkitutako materialei erreparatzen badiegu, lehia horren erantzule izan daitezkeen materialak aurki ditzakegu, gezi puntak kasu. Pozontarriko Lepoa trikuharrian -Adarra-, 7 dokumentatzen dira (*11 irudia*) eta Sagastietako Lepuan -Igoin-, gezi punta hostokara bat. Hilobiratzeak diren heinean, eremu batean talde ezberdinak kokatzearen ondorio, ziur aski garai ezberdinetan, bakoitzeko hilobi bat izango zuten, eta inoiz ez etsaien hilobia erabili (Armendariz, 1987). Baina eremu berdinean ere, harrespil bat baino gehiago aurkitzen dira, ehorzketa erritualetan lurperatze kolektiboetatik banakoetara aldatzean, pertsona garrantzitsuen hilobiak izango lirateke (Edeso *et al.*, 2010).

Abereentzako baliabideak eskuratzeko eremuak, hala nola ur-iturriak gertu izateak beharrezkoa da, eta denak ur iturrien ondoan kokatzen dira (*ikus taulak*). Hala ere, monumentuen kokapena hala nolakoa ez dela ondoriozta dezakegu. Giza talde ezberdinen abeltzaintza beharrak eta eremuaren gaineko kontrol bat nahi izateak, monumentu megalitoek lurralde markatzaile markatzaile funtziora eramaten



13. irudia: Oindiko zista eta bi udalerrien banaketa lerroa.

gaitu. Ezin da ukatu megalitoek garai batean lurraldekotasun zeinu gisara jokatu zutela, hots, hauen aurretik gizaki ehiztari biltzaileek izango zuten euren ehizarako toki zehatza, baina Neolito garaian batez ere jazoko da premiazko fenomeno hau.

Garai ezberdinetako hilobi mota hauek euren artean erlazio handia mantentzen dute, morfologia, funtzionalitate eta esanahian, horrenbestez askotan, mendi eremu oso zehatzak elkarbanatzen dituzte,



14. irudia: Txoritokietako monolitoa eta bi udalerrien banaketa lerroa.


trikuharri-zista, trikuharri-harrespil edota harrespil-zistak batera azalduz. Kasu hauetan, jatorrizko elementuaren esanahia sendotuz (mugarri zahar baten ondoan, berri bat ezartzen den modu berdinean). Horrek lurrarekiko errotze bat dakar, garai ezberdinetan zehar ustiatutako eta okupatutako lurralde berak, zona horrekiko lotura bat dakarrela ondoriozta daiteke. Egitura hauek hilobi izatetik mugarri izatera igaro dira, horrela askotan udalerrien banatzaile bihurtuz, Etzela (Elduain eta Hernani) edota Mulisko Gaina (Hernani eta Urnieta) kasu (*11 eta 12 irudiak*). Bestetik, aipaturiko hilobiratze motez gainera, zutarri edota monolitoak ditugu, zeinak partzelazio eta lurralde banaketaren elementu gisa jokatzen duten. Bere sinpletasuna kontuan hartuta kronologikoki zehaztea oso zaila suertatzen da, baina trikuharriek duten funtzionalitatearen antzera joka dezakete, mugarri gisa jardunez edota kulturarekin zerikusia duten praktiketarako erabiliz. Kasu kasu, Txoritokietako monolitoak adibidez, lurralde markatzaile modura jokatzeke aukera zuela ondoriozta dezakegu, gerora Astigarraga eta Errenteriako udalerriak banatzeko berrerabiliz (*13 irudia*).

Aurretiaz aipatu bezala, hauen beharra talde transhumanteen arteko elkar lehen fruitu izango ziren, espazio ekonomiko jakinen eskubideen aldarrikapenaren erantzule izanik, beste komunitate lehiakorren gurari erantzunez, lurraldea alde batera uzten zen garaietarako bereziki, urtaroen eguraldi aldaketen erantzule izango ziren eraikuntza berrien altxatzea (Agirre *et al.*, 2010).

Neolito eta Kalkolitoan mendikateak progresiboki okupatuak izango ziren, beraz garai paretuetan inguru berdinak elkarbanatu beharko ziren. Gainera, garai berdinean,

eremu geografiko berdinean bi hilobiratze modurekin topatzen gara, zeinak trikuharriak eta ehorzketa-haitzuloak

diren (*Marizulo, Aitzbitarte II*), kasu honetan ordea, ez luke markatzaile gisa jokatuko, baina agian bai kutsu kultural bat izango zuten. Aurreko ataletan ikusi dugun



15. irudia: Marizuloko giza arrastoen irudia (Laborde *et al.*, 1967).

modura, Marizuloko I. maileko beheko aldean giza hezurrekin batera txakur eta arkume baten hezurak aurkitu ziren, ostilamendu gisara utziak izan zirela ondorioztatu direnak, gainontzeko faunaren artean (14.irudia). Zehaztu behar da noski, nahiz eta eremu geografiko berdina izan, eta distantzia gutxira egon, kokaleku ezberdinen inguruan dihardugula. Baina jakina denez, Kalkolitoan trikuharriak eraikitzeari, bana ez erabiltzeari utzi egingo diote, hilobiratze ezberdinei lekua emanaz, ziur aski, inguruan jazotzen ari ziren aldaketa sozioekonomikoen erantzule.

Ikuspegi konstruktibo eta sinboliko batetik begiratuta, *zistek* dituzten dimentsioak kontuan hartuta taldeko indibiduo entzutetsu bati zuzenduta eraikiak izango ziren, baina askotan, trikuharrien ondoan agertzen dira, zeinak esanahi bera egotzarazi nahi izan zutela ondoriozta dezakegu, baita mugarri esanahia suspertu ere. Baina batzuetan, gure inguruan kasu, hilobi “indibidual” hauek, trikuharririk ez dagoen eremuetan jasoko dira. Aitzitik, Burdin Aroan, *zisten* ondoan zenbaitetan harrespilak eraikiko dira (Mulisko Gaina), baina ez beti (Langagorri eta Oindi). Honek, lurraldearen markatzaile hipotesia berresten du, mendiaren alderdi berdinean, hilobi eraikuntza ezberdinak eraikiko dira, horrela aurreko eraikuntzen funtzioa finkatuz.

Aipatzea beharrezkoa da monumentu megalitikoak ez direla bailaren beheko aldean kokatzen eta alderatuz, ehorzketa-haitzuloak berriz bai, zona hauetan kokatzen dira. Megalitoak aurretiaz aipatu bezala, eremu bereizgarrietan kokatuz, orografiak lagunduta, esparruarekin batera megalitoa ere bereizgarri egiteko: tontor, mendikate, malden apurketetan, ezproietan kokatzen dira hauek (Edeso *et al.*, 2012). Hori gutxi balitz eta aurretik aipatu bezala, zati esanguratsu bat uren banalerroan kokatzen dira, hauek eremuaren toki garaienetako antolaketa bat garatzeaz gainera, abeltzaintzarekiko eremu estrategikoetan zeuden, beharrezko ur iturrietatik gertu mantentzeko.

6. ONDORIOAK

Neolitizazio prozesuaren eta aldaketa sozio ekonomikoen aurrean megalitismoaren fenomenoak dugu, zeina nahiz eta Nafarroan eta Araban zaharragoak diren aztarnak aurkituko ditugun, Gipuzkoan 3335 ± 65 an urte inguruan izango dugu Marizuloko hilobia. Horren harira, aipatu beharra dago Neolitiko azken faseetan trikuharrien presentzia nabaria izango dela, ondoren Kalkolitoan eraikitzeari utziz, nahiz eta berrerabilpena gauzatzen jarraitu. Brontze Aroan berriz zistak ere aurkituko ditugu eta Azken Brontze Aroan eta Burdin Aroan berriz, harrespilak.

Historiaurreko gizarte taldeen eguneroko biziarekin elkar-lotzen diren eraikinak ez diren heinean, hil osteko munduaren bide edota ate bezala jokatzen zutela esan dezakegu. Gipuzkoako IEko eremua azertu ostean, hilobi arkitektura ezberdinekin bat egin dugu, zeinak megalitotegi ezberdinak antolatzen dituzten ezaugarri geografikoetan oinarrituz.

Megalitoak, mendilerroen inguru garaienetan kokatzen dira azertu bezala, baina ez bereziki tontorraren puntan, baizik eta gailurretik beheraxeago eskuarki. Gehienetan taldekotasuna adierazten dute (Adarra-Oindi-Mandoegiko megalitotegian bereizten diren Oindi, Adarra-Unamuno eta Ezioko taldeak); baita lerrokaduran kokatu ere (Igoian-Akola). Kokaleku hauen inguruak bat datoz abeltzainek ustiatutako eremuekin, azertu dugun saroiaren erabilera historikoarekin (Mulisko Gainako saroiak), abeltzain taldeek abereekin mendialdera egingo zuten baliabide anitzagoen eta berrien bila, abereei jarraiki, urtaroz urtaroko eguraldi aldaketak kontuan izanda. Uren banalerroekin, ur baliabideak gertu edukitzea, bai eremu emankorrago bat izateko eta baita abereen beharretarako, beharrezkoa izango litzateke -kasu guztietan azertu modura, hilobia ez da 1 km-ko distantzia kokatzen-.

Hartara, eremu menditsuek eskaintzen duten asentamendu egonkor baterako aukeran urriagoak dira, lautada batek eskaintzen dituenak baino, mugimenduak asko zailtzen baitira. Horregatik, giza talde hauek abereekin egin beharreko mugimenduak ugariagoak baina eremu txikiago batean izango lirateke, horrela, hilobien zenbaki altu baten presentziarekin egiten dugu topo, Gipuzkoako IEko lurralde osoan zehar.

Argitu beharra dago, megalitoen arteko bosibilizazioaren kontzeptua ez dela esanguratsua kokalekuaren eta banaketaren inguruan hitz egiterako orduan. Hilobiak ez dira lurretik 1-2 metro besterik ateratzen, mendian tontor txikiak eratuz, askotan ez

direnak distantzia handitik bereizten. Gainera bertan egongo zen landaretzak ere zaildu egingo zuen melaitoen arteko bisualizazioa.

Hilobi arkitekturan bilakaera garbi bat ikusten den bitartean, lurraren antolaketan eta megalitoen kokapenean ere eboluzio bat nabari da. Aipatzekoa da, Adarra-Oindi-Mandoegi eta Oiartzungo megalitotegien kronologia berri samarra dela, Burdin Aroko eraikuntzak gailentzen dira Kalkolito eta Brontze Arokoen aurretik, Igoi Akolan berriz, Kalkolitoko trikuharriak gailentzen dira hilobi berriagoen gainetik.

Hartara, Neolito zein Brontze Aroko arkitekturak askotan binaka edota Burdin Aroko harrespilekin aurkitzen dira. Hauek kolonizazio baten froga izan daitezkeela proposatu dugu. Batetik, gizarte talde ezberdinen arteko borroak (Adarran eta Igoien aurkitutako gezi puntak horren froga izan daitezke) eta lur-sailen banaketak eta bilakaerak hilobi ezberdinak eraikitzea ekarriko luke, eremu berdinean kokatzen ziren heinean. Bestetik, garai berdineko edota morfologia ezberdinetako (trikuharri/trikuharri, zista/trikuharri, zista/harrespil, trikuharri/harrespil) bi hileta egitura batera agertzeak, mugarri gisa jokatzeko duela adierazi dezake -Mulisko Gainako zista/harrespila edota Altxistako trikuharria/harrespila-. Giza taldeek leku zehatz batean eraikiko zituzten megalitoak eremuaren markatzaile modura, ondorengo gizarteak hauek erabiliko zituzten eta berriak eraiki, eremu hori berauena zela ziurtatzeko, ala aurrekoek zuten esanahiari indarra emanez. Egun ez ditugu ezagutzen gizartean gertatzen joan ziren aldaketa, populazioaren hazkundera eta hauen beharrak, giza-migrazioak, etab.

Aztertu moduan eta proposatutako hipotesiak kontuan hartuta, esan daiteke megalitoen kokapena ez zela izan ausazkoa. Hala ere, hauek ez dira nahikoak zehazteko hilobien kokapenaren zergati zehatzak. Garaian garaiko zein gizartean jazotzen zirela aldaketak medio (biztanle kopurua, beharretan abeltzantzaren aldaketetan etb.) hilobien egiturak aldatu bezala, hauen kokapenaren zergatiak ere aldatzeko aukera egon badagoela aztertu da.

7. BIBLIOGRAFIA

Agirre, J.; Moraza, A. & Mujika, J. A.

2010 Los elementos físicos como reivindicación del territorio y de sus frutos en los espacios de montaña. *In: Fernández, J. & Mujika, J.A. (eds.), Actas del Congreso Internacionalesobre Megalitismo y otras manifestaciones funerarias contemporáneas en su contexto social, económico y cultural.* Donostia/San Sebastián: *Munibe* 32, 286-313.

Alberdi, X. & Del Barrio, L.

2014 Estación megálica de Onyi-Mandoegi (Nº21). Monolito de Usabelartzza. *Arkeikuska* 2014, 380-390.

Altuna, J.; Armendariz, A.; Del Barrio, L.; Etxeberria, F.; Mariezkurrena, K.; Peñalver, X. & Zumalabe, F.

1990 *Gipuzkoa. Carta Arqueológica. I. Megalitos. Munibe* 7 gehigarria.

Altuna, J.; Del Barrio, L. & Mariezkurrena, K.

2002 *Gipuzkoa. Carta Arqueológica. Megalitos. Nuevos descubrimientos 1990-2001. Munibe* 15 gehigarria.

Andrés, M. T.

1990 El fenómeno dolménico en el País Vasco. *Munibe* 2, 141-152.

Aparicio, J.

2014 El Collado (Oliva. Valencia). *In: Sala, R.; Carbonell i Roura, E.; Bermudez de Castro, J.M. & Arsuaga, J.L. (eds.), Los cazadores recolectores del Pleistoceno y del Holoceno en Iberia y el Estrecho de Gibraltar.* Burgos: Universidad de Burgos. Fundación Atapuerca, 338-344.

Apellaniz, J.M. & Aluna, J.

1966 Excavaciones en dólmenes de Gipuzkoa. *Munibe* 1/4.167-184.

Armendariz, A.

1990 Cuevas sepulcrales en el País Vasco. *Munibe* 42, 153-160.

Armendariz, A. & Etxeberria, F.

1983 Las cuevas sepulcrales de la Edad de Bronce en Guipuzcoa. *Munibe* 35, 247-354.

Baena, J., Blasco, C. & Quesada, F.

1997 *Los SIG y el análisis espacial en la arqueología*. Madrid: Universidad Autónoma de Madrid.

Batzuen Artean.

1991 *Geomorfología y edafología de Gipuzkoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Blostad, P.

2002 *GIS fundamentals*. Eider Press.

Cava, A.

1990 El Neolítico en el País Vasco. *Munibe* 42, 97-106.

Ceberio, M.

2016. Estación megalítica de Oiartzun (Nº20). Labores de desbroce en los montes de utilidad pública nº 3.063.1, 3.063.2, 3.063.3 y 3.063.4 (Oiartzun). *Arkeoikuska* 2016, 401.

2016. Estación megalítica de Onyi-Mandoegi (Nº21). Labores de desbroce en los montes de utilidad pública nº 2.009.1 (Andoain). *Arkeoikuska* 2016, 402.

Del Barrio, L.

2011 *Megalitos en Gipuzkoa 2002-2011*. Departamento de Cultura. Gobierno Vasco.

2014 Nuevos megalitos localizados en el periodo 2011-2014. *Arkeoikuska* 2014, 384-386.

2016 Estación megalítica de Onyi-Mandoegi (Nº21). Puesta en valor del conjunto megalítico de Mulisko Gaina (Hernani). *Arkeoikuska* 2016, 402-403.

2016 Estación megalítica de Onyi-Mandoegi (Nº21). Identificación de un megalito tumular en Urnieta. *Arkeoikuska 2016*, 404.

Edeso, J. M.

1985 El relieve del País Vasco. *Geografia eta Historia sailaren Kuadernoak. Eusko Ikaskuntza 5*, 17-31.

Edeso, J. M. ; Mendizabal, M. & Mujika, J. A.

2010 Estrategias de gestión de los recursos de montaña por las poblaciones dolménicas y otros grupos humanos contemporáneos en el Pirineo Occidental. *In: Fernández, J. M. & Mujika, J. M. (eds.), Actas del Congreso Internacional sobre megalitismo y otras manifestaciones funerarias contemporáneas en su contexto social, económico y cultural*. Donostia- San Sebastian: *Munibe 32*, 368-388.

Edeso, J. M. & Mujika, J. A.

2012 Megalitismo y cuevas sepulcrales en Gipuzkoa. Distribución espacial y características generales. *Isturitz 12*, 83-114.

Garrido, R. ; Rojo, M. A; Tejedor, C. & García, I.

2012 Las mascararas de la muerte: ritos funerarios en el Neolítico de la Península Ibérica. *In: Rojo, M. & García, I. (eds.), El neolítico en la península Ibérica y su contexto Europeo*. Madril: Cátedra, 143-174.

Gibaja, J. F. ; Terradas, X. ; Morell, B. ; Allières, F. & Subirà, M. E.

2017 El yacimiento prehistórico de El Collado (Oliva, Valencia: una necrópolis de los últimos cazadores de la Península Ibérica. *Cabdells 15*, 5-24.

Iriarte-Chiapuso, M.J.; Arrizabalaga, A.; Etxeberria, F. & Herrasti, L.

2005 La inhumación humana en conchero de J3 (Hondarribia, Gipuzkoa). *In: Arias, P.; Ontañón, R. & García-Moncó, C. (Eds.). Congreso del Neolítico en la Península Ibérica, Santander: Universidad de Cantabria (Monografías de IIIIPC, 1)*, 607-313.

Laborde, M.; Barandiaran, J.M. ; Aauri, T. & Altuna, J.

1967 Excavaciones en Marizulo (Urnieta). (Campañas de 1965 eta 1967). *Munibe 3/4*. 261-270.

Martiñón, M.

2001 Los megalitos del término crónica del valor territorial de los monumentos megalíticos a partir de las fuentes escritas. *Trabajos de Prehistoria* 58, 95-108.

Meaza, G & Ruiz, E.

1996 *Euskal Herriko Geografia. Erliebea*. Lasarte Oria: Etor

Merino, A.

1990 Bioclimatología de Guipúzcoa. Lurralde, Investigación y espacio. *INGEBA* 13, 63-116.

Mujika, J. A. & Edeso, J. M.

2012 *Los primeros agricultores y ganaderos en Gipuzkoa del Neolítico a la Edad del Hierro*. Donostia-San Sebastian: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Mujika, J. A.

2017 Desde la penumbra de la prehistoria a los albores de la historia en Gipuzkoa. *In: Aragón, A & Echeberria I (eds.), Síntesis de la Historia de Gipuzkoa*. Donostia- San Sebastian: Gipuzkoako Foru Aldundia, 19-109.

Mujika, J. A.; Peñalver, X.; San Jose, S.; Lopetegi-Galarraga, A.; Edeso, J. M.; Arévalo, E.; Perez, S.; Ruiz, M.; Goikoetxea, I. & Fernández, T.

2017 Los enterramientos en cista en el Pirineo Occidental y su entorno durante la Edad de Bronce. *In: Fernández Eraso, J.; Mujika, J. A.; Arrizabalaga, A. & García, M. (eds.), Miscelanea en homenaje a Lydia Zapata Peña (1965-2015)*. Universidad del País Vasco, 495-520.

Parcero-Oubiña, C. & González, C.

2007 *Los SIG y la gestión de la información arqueológica. Simposio Internacional de arqueología de Mérida*. Mérida: CSIC

Peñalver, X.

1987 Mulisko Gaineko indusketa arkeologikoa. Urnieta-Hernani (Gipuzkoa). *Munibe* 39, 93-120.

1998 Yacimiento de Langagorri (Astigarraga-Errenteria). *Arkeoikuska* 98, 399-402.

2005b Los crómlechs pirenaicos. *Bolskan* 22, 11-349.

Peñalver, X. & Uribarri, E.

1996 Oindi zistako indusketa arkeologikoa (Urnieta, Gipuzkoa). *Munibe* 48, 81-91.

Perez, L.

2014 Modelización y distribución espacial de los fenómenos megalíticos en el sector septentrional de Navarra-zona oriental de Gipuzkoa. Leioa: *CKQ*, 81-93.

Ruiz, E. & Galdos, R

1989 El clima de la vertienteatlántica del País Vasco. *Ibaiak eta Haranak: el agua, el río y los espaciosagrícola, industrial y urbano*. Donostia-San Sebastián: Etor.

Sesma, J. & García, J.

2001 Los Cascajos (Los Arcos, Navarra). *Trabajos de Arqueología Navarra* 15, 299-306.

Tapia, J. & Ceberio, M.

2010 Igoin-Akola eta Txoritokietako Estazio Megalitikoen inguruko miaketak (Errenteria-Donostia Hernani-Astigarraga). I. Miaketa-Kanpaina. Donostia- San Sebastian: Aranzadi Zientzi Elkarte. *Aranzadiana* 131, 119.

2015 Entorno de las Estaciones Megalíticas de Igoin-Akola (Nº 13) Y Txoritokieta (Nº26) (Astigarraga, Errenteria, Hernani, San Sebastian). VI Campaña. *Arkeoikuska* 2015, 382.

Tarriño, J. & Mujika, J. A.

2002 La gestión del sílex como uno de los elementos articuladores del territorio en el megalitismo vasco. *Kobie 6 gehigarria*, 191-202.

Teira, L. C.

1994 *El megalitismo en Cantabria: aproximación a una realidad arqueológica olvidada. Memoria de Tesis Doctoral*. Santander: Universidad de Cantabria.

Thomas, J

2012 Los monumentos megalíticos de Europa. In: Rojo, M. & García, I (2012). *El Neolítico en la Península Ibérica y su contexto Europeo*. Madrid: Cátedra, 55-74.

Uriarte, A.

1987 El clima de la costa vasca. *Itsasoa: el mar de Euskal Herria: la naturaleza, el hombre y su historia*, 2, 37-45. Donostia-San Sebastián.

Vegas, J. I.

2007 *San Juan Ante Portam Latinamuna inhumación colectiva prehistórica en el valle medio del Ebro: memoria de las excavaciones arqueológicas, 1985, 1990 y 1991*.

Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava.

WEBGRAFIA

Gipuzkoa Batzar Nagusiak (2012). : http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/territorio_historico_de_gipuzkoa.jsp?id=0402

Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda. <http://www.euskadi.eus/geologia-de-la-comunidad-autonoma-del-pais-vasco/web01-a2ingdib/es/> (ikusia:2018-04-02)

Aranzadi-Carta megalítica: <http://www.aranzadi.eus/carta-megalitica>

Real Academia de la Lengua: <http://www.rae.es/>

8. ERANSKINAK

1)

Baina gai honen inguruan eztabaida asko suertatu dira azken urteetan zehar. Neolitizazio prozesuan Gipuzkoako lurretan zein garaitan jazo zirenaren inguruan (Cava, 1990). Megalitismoaren egileak talde mesolitiko edota Neolitikoak ziren. Hasiera batetik behintzat monumentu megalitiko hauen agertzea ez zen jazo nekazal asentamentuen inguruetan, baizik eta ehiztari biltzaile taldeak neolitizazio prozesua jasotzen ari ziren zonaldeetan (Thomas, 2012). Azken urteetako indusketa oso zehatzak eta gauzatutako azterketa zientifikoak (C14 eta termoluminiszientzia), zehaztasunerako bidea ireki dute (Armendariz, 1987). Arkeologia da dugun zientzia bakarra hileta kultura honi hurbiltzeko, hortaz, hau aztertzerako orduan desorekak ikusiko dira lurraldeen artean zeinak errealitatea sistematizatzeko zailtasunak suertatuko dituen (Garrido *et al.*, 2012). Gipuzkoako lurraldean egin ziren indusketetatik ateratako suharriaren zati nagusi bat, transhumantzia praktikatzen zuten taldeetatik erabiliak izan zirela ondorioztatu da. Egin ziren ikerketak medio, talde neolitiko eta mesolitikoak leku berdinetatik ustiatzen ziren errekurso biotiko eta abiotiko berdinetatik, hots, suharritik. Beraz hauen arteko erlazioa beharrezkoa izango zen. Baina talde ezberdinak izan beharrean, agian leku batetik bestera mugitzen ziren taldeen jabe izango ziren (Tarrío *et al.*, 2002).

2)

El Colladoko nekropolia mesolitikoko azken ehiztari biltzaileek okupatutako aire zabaleko aztarnategi bat da. Valentziako Oliva udalerrian kokatzen da, zeina gutxi gora behera itsas mailatik 100 m-tara kokatzen den. Itsas mailaren aldaketak zirela medio, giza taldeek testuinguru ezberdinetara egokituta egongo ziren eta horrela baliabide ezberdinak aprobetxatzeko aukera izango zuten. Aztarnategia garai ezberdinetan okupatua izan da, horrek erabilera ezberdinak eskaini zizkion eremuari. 15 gorpu aurkitu ziren bertan, zeinak datazio ezberdinekin zehaztuak izan ziren. 9475-9033 cal BP eta 8591-8408 cal BP-ko datazio tarteak eskaintzen dute gorpuek, zeinak lau faseetan banatuko ziren lurperaketak osotasunean (Gibaja *et al.*, 2017). Hala ere, ikerketek aztertu moduan, asentamendua 5.500 BC-ra arte okupatua izango da (Aparicio, 2015). Iberiar Penintsulan ez da horrelakorik aurkitzen eta gainera, hori gutxi balitz,

horrelako testuinguruan zehazten den lurperaketa mesolitikorik ez aurkitzeaz gainera, iraupen luzeen duen nekropolia kontsideratzen da (Gibaja *et al.*, 2017).

3)





Hauen morfologiari dagokionean, barrunbeen kokalekua aldatzeko aukerak ditu; batzuetan sarrera estuak eta beste batzuetan zabalagoak izango dituzte. Azken hauek Paleolito zein mesolito garaietan bizileku moduan erabiliak izan ziren gizakien eskutik Urnietako *Marizulo* haitzuloa kasu. Gorputza normalean zuloan sartu ondoren, bertatik ateratako sedimentuarekin betetzen zuten, aztarnen interpretazio egokia zailduz. Fenomeno honek, ehorzketa leku gisara erabiltzeak ekarri du, baina askotan aztarnategi bakoitzeko stratigrafiak nahastu egiten dira zenbaitetan kronologia arazoak suertatuz. Barrunbeen neurriak handiak direnean, ehorzketak txoko bazter samarretan egiten zituzten, eta barnealdeko leku babestuak erabili gabe utzi.

Sarritan kontraesan modura ikusi izan da hildakoarentzat babesa bilatzeko kontzeptua, zenbaitetan proposatu izan da hildakoak zuzenean lur gainean ezartzeaz gainera, inguruan egurrezko babes bat eraikitzen zutela, hots, fibra begetalez edota hurritzaren egurrarekin egindako eraikuntzetan horren adibide izan daiteke. Kozabarra (Deba) eta Zozuarte (Mutriku) aztarnategietan aurkitutako buztin bloke gogortuak kasu, hala ere, egun horren arrastoak geratzen ez direlarik (Aragón *et al.*, 2017). Planteatzen den beste modu bat ere, harri koxkorrekin eraikia izan denaren hipotesia da, egun nekazarien harrimetatzat interpretatzen dena. Hala ere, praktika hauek ezin dira alde batera utzi, klimatologia lehorragoko eremu stratigrafikoetan egin diren indusketetako emaitzek argi utzi dute hilobi-haitzulo zenbaitetan oso erraz galtzen diren elementuak aurkitu izan zirela. Klimak askotan ehorzketei inguruko informazioa eskuratzeko aukerari dagokionez zaildu egiten dute, Gipuzkoako baldintza klimatikoak kaltegarriak baitira horretarako. Esan beharra dago, haitzuloetako barne bolumenaren neurriak ez duela zerikusirik bertan ehortzitako pertsona kopuruarekin eta gainera barrunbearen tokia eta urtean zehar izaera ezberdina izatera igarotzen dira, begi bistakoa baita asko mendiko inguru malkartsuetan kokatzen direla, eta toki horretara beraz, uda partean joaten zirela abeltzain transhumante taldeekin lotuta egote aldera (Mujika *et al.*, 2012).

4) Litologiako taulen zenbaketa:

1.	Ale larriko arroka detritikoak (hareharriak eta mikro konglomeratuak)
2.	Kareharri hareatsuak, tuparriak tartekaturik
5.	Detritiko alternantzia (hareharriak eta lutitak)
7.	Tuparri gris iluna
8.	Kareharri ezpuruak eta kalkarenitak
9.	Kuartzoa
10.	Arbelak eta grauwakak
12.	Granittoa
16.	Arbelak

5) Hilobi motak

	TRIKUHARRIA
	ZISTA
	HARRESPILA
	TUMULUA
	ZUTARRIA

6) Kolonizazioa

Hasteko, kontutan izan behar dugu ordena kontzeptual desberdin baten mugitzen garela, eta beraz, perspektiba historiko batetik aztertu behar ditugula historiaurreko gertakizun ezberdinak. Kokapen geografikoa bezalako kontzeptuak jorratu nahi ditugun heinean, egungo parametro eta irizpideetatik ihes egiten duen perspektiba historikoa erabili behar dugu, kontzeptuok garai desberdinetan identifikatzeko eta aztertzeko gai izateko, eta ondorioz, hauen bilakaera eta testuingurua modu zuzenago batean ulertzeko. Horren harira, Kolonizazio hitzaren erabilera, parametro historikoetara mugatzen da bere esanahiaren nondik norakoak aztertzen baditugu. Kolonizazio hitza etimologikoki “colonus” (biztanle), “izare” (bihurtu) hitzen osatzearekin dator. Real Academia de la Lengua-n begiratu ezkeren 1843ko esanahian “kolonizazioa” hitza “el acto de colonizar” ; “formar colonia en algún país” ; “cierta porción de gente que por orden de algún príncipe o república a establecerse en otro país, y también el lugar o sitio que se establece”. Urte batzuk aurrerago eginez gero “conjunto de personas que van de un país a otro para poblarlo y cultivarlo, o para establecerse en él”. Egun, RAEn azaltzen diren bi esanahi ezberdin ditugu, batetik “formar o establecer colonia en un país “ eta bestetik “fijar en un terreno la morada de sus cultivadores” (RAE, 2018).